

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Amurrio Ferrocarril y Equipos, SA enpresaren hitzarmen kolektiboa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezka riarena. Honen bidez ebazten da 2022-2023-2024 Amurrio Ferrocarril y Equipos, SA enpresa- rentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01001202011981.

AURREKARIAK

2022ko abuztuaren 3an aurkeztu da, ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariek eta ordezkarik sozialek, 2022ko ekainaren 10ean sinatu zuten lan hitzarmen kolekti boaren testua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)– dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak– lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko lan hitzarmen eta akordio kolektiboaren eta berdintasun planen erregistroa eta enpresa Amurrio Ferrocarril y Equipos, SA hitzarmen kolektiboa Arabako lurralde bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a

Arabako lurralde ordezkaritza

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

**Amurrio Ferrocarril y Equipos, SA hitzarmen kolektiboa
2022-2023-2024 urteak**

1. artikulua. Esparru pertsonala.
2. artikulua. Denbora-esparrua.
3. artikulua. Soldataren igoera.
4. artikulua. Berme pertsonalak.
5. artikulua. Irenstea eta konpentsatzea.
6. artikulua. Osotasunari atxikitzea.
7. artikulua. Adostutako etekinak.
8. artikulua. Arau osagarriak.
9. artikulua. Lanaldia.
10. artikulua. Oporrak.
11. artikulua. Gehiegizko lanaldia.
12. artikulua. Ordaindutako kontzeptuak.
13. artikulua. Oinarrizko soldata.
14. artikulua. Antzintasun-plusa.
15. artikulua. Presentzia-plusa.
16. artikulua. Prima.
17. artikulua. Kalifikazio-plusa.
18. artikulua. Lan bereziki toxiko, nekagarri edo arriskutsuen plusa.
19. artikulua. Gaueko lanaren plusa.
20. artikulua. Txanda-plusa.
21. artikulua. Aparteko haborokinak.
22. artikulua. Distantzia- eta garraio-plusa.
23. artikulua. Absentismo-ezaren plusa.
24. artikulua. Pertsonalaren mugikortasuna.
25. artikulua. Lizentziak eta baimenak.
26. artikulua. Ikasteko beka.
27. artikulua. Ekonomatua.
28. artikulua. Gaixotasun arrunta eta lan-istripua.
29. artikulua. Azterketentzako baimenak.
30. artikulua. Zeregin publikoak betetzea.
31. artikulua. Osasun-azterketak.
32. artikulua. Lanpostuaren erreserba.
33. artikulua. Lanerako arropa.
34. artikulua. Laguntzarako funtsak.

- 35. artikulua. Aurrerakinak.
 - 36. artikulua. Batzorde mistoa.
 - 37. artikulua. Batzorde mistoaren funtzioak.
 - 38. artikulua. Zehapenen berri ematea.
 - 39. artikulua. Enpresari buruzko informazioa.
 - 40. artikulua. Enpresa-batzordearen ordutegia.
 - 41. artikulua. Noizbehinkako erreleboen ordutegia.
 - 42. artikulua. Batzarrak.
 - 43. artikulua. Bizitza-asegurua.
 - 44. artikulua. Lanaldi partzialeko enpresak.
 - 45. artikulua. Langileen kontratazioa eta igoera.
 - 46. artikulua Prestakuntza.
 - 47. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak gordetzea.
 - 48. artikulua. Lanbide-kategoriak eta taldeak.
 - 49. artikulua. Faltak eta zehapenak.
- Azkeneko xedapenak.
- 1. Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasuna.
 - 2. Sexu-jazarpena lan-ingurunean.
 - 3. Euskararen sustapena.

I. kapitulua

1. artikulua. Langile-eremua

Enpresaren lan-hitzarmen kolektibo honek bere eraginpean hartuko ditu Amurrion (Araba) lan egiten duen plantillako langile guztiak, edozein izanik ere langile horien lanbide-kategoria.

Era berean, hitzarmen honen indarraldian enpresan lanean hasten diren langileak ere barne hartuko dira eta hitzarmenaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira hemen aipatzen diren zuzendaritzako langileak Langileen Estatutuaren 2. a) artikuluan.

2. artikulua. Denbora-eremua

Hitzarmen honetatik eratorritako baldintzak 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta hiru urte iraungo dute, hau da, 2024ko abenduaren 31ra arte, lan-administrazioako agintaritzak edozein egunetan erregistratuta ere.

Hitzarmen honen indarraldia amaitzean, automatikoki salatutzat joko da, inongo formalitate-
ren beharrik gabe, eta, hortaz, berehala negoziazio-mahaia eratuko da.

Salaketaren ondoren, hitzarmen berria negoziatzeko gehieneko epea 3 urtekoa izango da, data horretatik aurrera. Dena den, hitzarmenaren indarraldia amaituta, edukia hitzarmen berria sinatu bitarte aplikatuko da.

3 artikulua. Soldaten igoera

2022. urterako soldata-kontzeptuak igo egingo dira, 2021eko abenduaren 31ra arte estatuko KPlak ofizialki izandako igoeraren baliokidea den ehuneko batean. 2023. urterako, berriz, estatuko KPlak ofizialki izandako igoeraren baliokidea den ehunekoa izango da, 2022ko abenduaren 31ko KPlaren ondoriozkoa. 2024. urterako, ostera, ordaindutako kontzeptuak igo egingo dira, 2023ko abenduaren 31ko KPlan + ehuneko 2, bien batura (KPIa + ehuneko gehigarria) ez baldin bada ehuneko 8tik gorakoa, eta KPlaren balioa zortzi baino txikiagoa baldin bada. Soldata-igoera bi kontzeptuen artean, (adierazlea + hitzartutako ehunekoa) ehuneko 8tik gorakoa bada eta, gainera, KPlaren balioa 8 edo handiagoa bada, KPlari dagokion balioa soilik aplikatuko da.

4. artikulua. Berme pertsonalak

Oro har kontuan hartuta, hitzarmen honetan itundutakoa gainditzen duten baldintza pertsonalak errespetatuko dira; horrela, hitzarmen honen indarraldiaren aurretik hemen ezarritakoa baino ordainsari handiagoa jasotzen zuten langileei ez zaie ordainsaria gutxituko honako hitzarmen hau indarrean jartzearen ondorioz.

5. artikulua. Barnean hartzea eta konpentsazioa

Hitzarmen honetan itundutako baldintza ekonomikoek sektorean dauden guztiak irentsi eta konpentsatuko dituzte, edozein izanik ere baldintza horien nondik norakoa, izena edo jatorria.

Hitzarmen hau indarrean den bitartean aplikazio orokorreko, sektoreko edo probintziako legezadapenei jarraiki, igoerarik ezartzen bada kontzeptu ekonomikoetan nahiz bestelako kontzeptuetan, orokorrean eta urteko zenbatekoan hitzarmen honetan itundutakoak gainditzen dituztenek soilik eragingo diote hitzarmenari.

6. artikulua. Osotasunerako lotura

Hitzarmen honen klausulek osotasun organiko eta zatiezina osatzen dute, eta ezin dira partzialki aplikatu.

Hitzarmenaren sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzartutakoa betetzeko, eta sinatzaile guztiek hitzarmeneko baldintza guztiak bete behar dituzte.

Hala ere, une jakin batean, enpresaren egoera dela-eta beharrezkoa balitz hitzarmen honetan ezarritako baldintzaren bat ez aplikatzea, Langileen Estatutuko 82.3. artikuluan ezarritakoari jarraiki, enpresak konpromisoa hartzen du baldintza horiek ez aplikatzeko negoziazioak egitea enpresa-batzordearekin.

Kasu horretan, behin enpresa-batzordeari egoera jakinarazitakoan, 15 eguneko epea egongo da kontsultak egiteko, alderdiek negoziata dezaten hitzarmena zertan eta zer epetan ez den aplikatuko. Kontsulta-epean ados jartzen ez badira, hitzarmeneko batzorde paritariora joko dute aldeek. Batzorde paritarioak 7 egunetan ebatzi beharko du auzia.

Ebazpena eman arren adostasunik ez badago, indarrean dauden gatazkak konpontzeko judizioz kanpoko prozeduretara joko dute aldeek (PRECO). Edonola ere, nahitaezko arbitrajea baztertuta geratzen da. Era berean, aldeek ados jarri behar dute ORPRICera (Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoa) edo helburu bera duen beste edozein erakundetara jotzeko.

7. artikulua. Itundutako errendimenduak

Hitzarmen honetan itundutako ordainsariak hitzarmenaren eraginpean dauden ekoizleen laneko errendimendu normal eta egokiaren ordainetan emango dira. Hau da errendimendu normal eta egokitza joko duguna: hitzarmen hau indarrean jarri aurreko hamabi hilabeteetan langile bakoitzaren errendimendu arrunta.

Edonola ere, kontrol-sistemaren pean dauden langileek 60 Bedauxetik gora jaso ahal izango dute jarduera-prima, soldata-tauletan ezartzen den balioaren arabera. Kontrol-sistemaren pean ez dauden tailerreko langileek, ordea, 80 Bedauxi dagokien prima jasoko dute.

8. artikulua. Arau osagarriak

Alderdi sinatzaileek adosten dute hitzarmen honetan espresuki arautzen ez diren gaietan, indarrean dagoen metalurgia-industriarako Arabako hitzarmen kolektibo probintzian ezarritakoari jarraituko zaio. Eta aplikagarriak diren gainerako legezko arauak.

Egoera hori gertatuz gero, enpresa-batzordeari kontsulta egin ondoren aplikatuko da eta alderdiek ez baldin badute egiten haren inguruko negoziaketarik.

Arau horrek ezingo du inoiz suposatuta enpresan adostutako baldintzak okertzea.

II. kapitulua

9. artikulua. Lanaldia

Hitzarmen honetan azaltzen diren baldintza ekonomikoak ordu-kopuru hauei dagozkie hitzarmenaren indarraldian: 1.686 ordu lanaldi arrunterako eta 1.646 ordu txandako lanaldirako.

Urteko lanaldi hori lan-egutegian zehazten dena da. Egutegi hori aurreko urteko abenduan onartuko da.

Langileen Estatutuko 34.2. artikuluan jasotako lanaldiaren banaketa irregularra ezartzeko, lan-egutegian adierazten den eta hitzarmen honetan arautzen den lanaldiaren malgutasunetik harago, ezinbestekoa izango da enpresak eta enpresa-batzordeak aurrez hala adostea.

10. artikulua. Oporrak

Hitzarmen honen aplikazio-eremuaren barnean hartutako langileek 30 opor-egun izango dituzte urtean. Opor horiek erantsitako soldata-tauletan kategoriatu bakoitzerako ezarritako zenbatekoan ordainduko dira, gehi, hala badagokio, 12 b) artikuluan jasotako kontzeptuekin gehituak.

Atsedendia horretaz gozatzeko datak lan-egutegian zehaztu eta ezartzen direnak dira. Hala ere, zerbitzu-beharrak direla-eta (ustekabeko konponketak izan ezik) oporrak izateko eskubidea izan arren atsedendia ezarritako datan hartu ezin duten langileei bi hilabete lehenago jakinaraziko die enpresak.

Oporretan aldi baterako ezintasunagatikoa baja hartzen duten langileek alta jasotzen dutenean gozatu ahalko dute oporrez, alta beste urte natural batean jaso arren.

11. artikulua. Gehiegizko lanaldia

Lan egindako ordu bakoitzeko, bi ordu ordainduko dira, ordu arrunt baterako ezarritako ordainsariekin eta 12.b) artikulutik egokitzen diren kontzeptuekin. Bata sortzen den hilabetean ordainduko da, eta bestea gozaten den hilabetean.

Jaiegunetan edo larunbateko 14:00etatik igandeko 22:00etara egindako gehiegizko lanaldien kasuan, 2.75 ordu sortuko dira lan egindako ordu bakoitzeko, bat atsedean hartuz eta 1.75 ordu ordainduz.

Mantentze elektriko eta mekanikoari dagokionez, orduak abian den urtean zehar hartzerik ez badago, enpresa-batzordearekin adostuko da orduak hartzeko edo ordaintzeko modua.

Nolanahi ere, enpresa-batzordeko kideei hilero jakinaraziko zaie pertsona bakoitzak aparteko zenbat ordu egin dituen, bai eta aparteko ordu horiek egin izanaren zergatia. Kasu horietan ez da langileen izen-abizenik adieraziko. Informazio hori enpresak sinatu eta zigilatuko du.

III. kapitulua

12. artikulua. Ordaintzen diren kontzeptuak

Hitzarmen honetan honako ordainduriko kontzeptu hauek jasotzen dira:

a) Oinarrizko soldata.

b) Osagarriak.

1. Antzinasun-plusa.

2. Presentzia plusa.

3. Jarduera-prima. (Bedaux puntuaren balioa).

4. Kalifikazio-plusa. (Bakoitzarena edo neurtua).

5. Lan toxiko, nekagarri edo bereziki arriskutsuengatiko plusa.

6. Txanda plusa.

7. Gaueko lanaren plusa.

c) Uztaileko eta Gabonetako aparteko haborokinak.

d) Absentismorik ezagatiko plusa.

e) Mozkinen ordainsaria.

13. artikulua. Oinarrizko soldata

Hitzarmen honen aplikazio-eremuko langileen oinarrizko soldata erantsitako soldata-tauletan lanbide-kategoria bakoitzerako zehaztutako hura da.

14. artikulua. Antzinasun-plusa

Lanean emandako urteen truke jasotzen diren aldizkako igoeren kopuruak bost urtero ordainduko dira. Kopuru horien eguneko balioa lanbide-kategoria bakoitzerako zehaztu da erantsitako soldata-tauletan.

15. artikulua. Presentzia-plusa

Presentzia-plusa ohiko lanaldiko lanegun bakoitzean sortuko da, soldata-tauletan lanbide-kategoria bakoitzerako ezarrita dauden zenbatekoetan. Langile bakoitzak jasoko duen plusa murriztu egingo da lanera garaiz ez iristeagatik edo lanera ez agertzeagatik, zenbateko hauetan:

A) Bost minututik beherako atzerapenengatik, plusaren ehuneko 15 galduko da.

B) Bost minututik gorako atzerapenengatik, plusaren ehuneko 25 galduko da.

C) Ordubetetik gorako atzerapenengatik, plusaren ehuneko 100 galduko da (lanaldi arrunterako).

D) Bi ordutik gorako atzerapenengatik, plusaren ehuneko 100 galduko da (txandetarako).

E) Bi ordu baino gutxiagoko absentziak, plusaren ehuneko 25 galduko da.

F) Lanaldi erdiko absentziak, plusaren ehuneko 75 galduko da.

G) Lanaldi bateko absentziakagatik, plusaren ehuneko 100 galduko da.

16. artikulua. Jarduera-prima

Jarduera-prima dagokionean ordainduko da egiazko lanaldiaren arabera, hitzarmen honetako 7. artikulua arabera, hau da, 60 Bedauxetik aurrera eta langile bakoitzak lortutako puntu bakoitzaren balioaren arabera.

17. artikulua. Kalifikazio-plusa

Zereginak baloratzeko sistema objektiboaren eraginpean ez dauden langileei dagokienez, osagarri horri eutsiko zaio hitzarmen honetako 7. artikuluan definitutako baldintzetan.

18. artikulua. Lan bereziki toxiko, nekagarri edo arriskutsuengatiko plusa

Lan bereziki toxiko, nekagarri edo arriskutsuak egin behar dituzten langileei plus bat ordainduko zaie. Plus horren ordu bakoitzaren balioa 2. eranskinean zehaztuta dago kategoria bakoitzerako.

19. artikulua. Gaueko lanaren plusa

Gaueko 22:00etatik goizeko 6:00ak arte lan egin behar duten langileek plusa jasoko dute konpentsazio gisa, hau da, gauetz lan egin beharragatik. Plus horren orduaren balioa II. eranskinean ezarrita dago lanbide-kategoria bakoitzerako, salbu eta langileak jarduera horiek egiteko kontratua badu.

20. artikulua. Txanda-plusa

Goizean eta arratsaldean (bi txanda) txandaka lan egiten duten langileek eta hiru txandetan lan egiten dutenek (goizean, arratsaldean eta gauean), urtean 127,39 euro gordineko plusa jasoko dute, txandakako lanegun bakoitzaren arabera banatuta.

21. artikulua. Aparteko ordainsariak

Hitzarmen kolektibo honen eraginpean dauden langileek aparteko bi ordainsari jasoko dituzte. Lehenengoa uztailean abonatu da, eta bigarrena abenduan, lanbide-kategoria bakoitzari esleitutako soldataren 30 eguneko zenbatekoan, gehi 12.b) artikulutik egokitu litezkeen kontzeptuen hileko batez besteko zenbatekoa eta aurreko aparteko ordainsaritik gaueko plus gisa jasotakoaren batez bestekoa. Enplegatuek, gainera, plus berezi bat jasoko dute aparteko ordainsari bakoitzean: 12.b) artikulutik egokitu litezkeen soldata-kontzeptuen 5 egun dagokiena.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, langile guztiei ordainsari lineal bat ordainduko zaie. Ordainsari hori ezin izango da finkatu, eta enpresaren onura banagarrien ehuneko 5 izango da. Adierazitako ordainsaria hurrengo urteko ekainean edo uztailean kobratuko da, kontuak itxi ondoren.

22. artikulua. Urruntasuneko eta garraiorako plusa

Hirigune gisa adierazitakotik 2 km baino urrunago bizi diren langileek 0,128 euroko urruntasun-plusa jasoko dute kilometro bakoitzeko, eta plus horrek ez du gaindituko oinarritzko soldataren ehuneko 25.

Urruntasun-plusak egunean joaneko bidaia bat eta itzulerako beste bat hartzen ditu soilik. Plus hori bide publiko laburrenetik ordainduko da, betiere aurretik aipatutako 2 kilometroak kenduta. Garraiobide publikoa hartzeko aukera baldin badago, enpresak garraiobide horri dagokion zenbatekoa ordainduko du.

Langileak bere ibilgailua erabili behar badu enpresaren zerbitzurako, egindako kilometro bakoitzeko 0,4045 euro ordainduko zaizkio.

23. artikulua. Absentismorik ezagatiko plusa

Plus hori lau hilean behin sortuko da, eta hurrengo hilabetean ordainduko zaie langileei, erreferentziako epean langileen absentismoak –gaixotasun arruntak edo profesionalak eta laneko istripuak edo lanekoa ez denak eraginda– ez baditu gainditzen ehuneko hauek:

- Lanegunen ehuneko 1, lan-kontingentzia bada.
- Lanegunen ehuneko 4, kontingentzia arrunta bada.

2022. urterako plus horren zenbatekoa honako hau izango da:

KATEGORIAK	URTEKO ZENBATEKOA	LAUHILEKOKO ZENBATEKOA
Langile soilak		
1. urteko espezialista	213,85	71,28
Espezialista	216,23	72,08
3. mailako ofiziala	219,35	73,12
2. mailako ofiziala	229,62	76,54
1. mailako ofiziala	240,60	80,20
1. mailako ofiziala talde-burua	272,57	90,86
Gainerako langileak	235,67	78,56

24. artikulua. Langileen mugigarritasuna

Sailen batean lana antolatu behar bada edo lanik ez badago, eta enpresako zuzendaritzak hala erabakiz gero, langileak beren ohiko lanpostutik mugitu ahal izango dira, beren eskubide ekonomikoei kalterik egin gabe. Enpresa-batzordeari aldaketen berri emango zaio.

Mugigarritasuna, 6 hilabete behin, txandakakoa izango da, langileak eskatuz gero.

Lanpostua aldatzeak langileari arrisku gehiago badakarkio, aldaketa hori egiten denean jakinarazi beharko dio enpresak batzordeari.

Enpresa-batzordea eta zuzendaritza hiru hilean behin bilduko dira aldaketa horien ondorioz sortu daitezkeen arazoak aztertzeko.

25. artikulua. Lizentziak eta baimenak

Enpresako langileek, behar bezainbeste denbora lehenago adieraziz gero, ordaindutako baimenak jasotzeko eskubidea dute, gertaera hauengatik bada:

– Langilearekin bizi diren ezkonlagun eta seme-alaben heriotzagatik: laneguneko 5 egun. Ordaindu gabeko beste hiru egunez luzatu ahal izango da baimena.

– Langilearekin bizi ez diren guraso, ezkonlagun eta seme-alaben heriotzagatik: laneguneko 3 egun.

– Langilearekin bizi ez diren bigarren mailarainoko ahaideen –odol-ahaidetasunezkoak edo ezkontza-ahaidetasunezkoak– heriotzagatik: laneguneko 2 egun.

– Aurreko kasuetan sartu ez diren eta etxe berean bizi diren senideak hiltzeagatik: lanegun 1.

– Ordaindu gabeko baimena emango da hiletetara joateko.

– Ezkontza-kidetasunezko edo odol-kidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen istri-puagatik, gaixotasunagatik edo ospitaleratzeagatik, edo, ospitaleratu gabe, etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoagatik: egutegiko 2 egun. Arrazoi hori dela-eta langileak bidaia egin behar badu, egutegiko bi egun gehiago hartu ahal izango ditu. Baimen hau gaixotasun larri edo ospitaleratzeak iraun bitartean hartu ahal izango da.

– Etxe berean bizi diren beste senide batzuk ospitaleratzeagatik: egun natural bat.

– Erditu aurretiko mediku-azterketa teknikoak (erditzeko prestatzekoak) egiteko, lanorduetan egin behar badira: azterketak egiteko behar den denbora.

– Emaztearen erditzeagatik: egutegiko 3 egun, horietatik gutxienez 2 lanegunak izanik, enpresako egutegiaren arabera. Erditzean ebakuntza kirurgikoa egin behar izanez gero (zesarea), egutegiko 2 egun gehiago izango dira.

– Edoskitzea: langileak 9 hilabetetik beherako haurra zaintzeko ordu erdiko lanaldi-murrizketa metatu ahal izango du.

– Langilearen ezkontza: 18 lanegun enpresan 2 urte baino gehiago daramaten langileentzat, eta 15 egun gainerako langileentzat.

– Etxebizitzaz aldatzea: egutegiko egun 1.

– Gurasoen, seme-alaben eta anai-arreben ezkontza: egutegiko egun 1.

– Ezkontidea, seme-alabak eta langilearekin bizi diren lehen mailako ahaideak Osakidetzako larrialdi-zerbitzuetara laguntzeko, behar den denbora, baldin eta lanorduetan bada. Langileak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du enpresan. Egiatagiri horretan sarrera-ordua eta irteera-ordua azalduko dira. Baimen bera aplikatuko da langilearen kargura dauden gurasoen kasuan.

Ordaindutako lizentziak izatezko bizikidetza modu frogagarrian egiaztatzen denean aplikatuko dira.

– Langileak behar duen denbora guztia izango du Osakidetza / Euskal Osasun Zerbitzuko espezialisten mediku-kontsultara joateko, kontsulta-ordua eta lanorduak bat baldin badatoz eta kontsulta hori medikuntza orokorreko mediku batek agintzen badu. Horretarako, langileak aldeztu aurretik mediku-agindu horren egiaztatzea aurkeztu beharko dio enpresaburuari. Gainerako kasuetan, urteko hamasei ordu izango da muga.

– Gizarte Segurantzako espezialista medikoaren baimena (txandakako lana): kontsulta-ordua lanorduetatik kanpo baldin bada, ordu-kopuru bat ordainduko da. Ordu-kopurua formula honen arabera kalkulatu da:

– Langileak lanalditik kanpo behar dituen orduak gehi ordu bat denbora hori eta otorduaren garaia aldi berean badira $\times 0,5$, hau da, ateratzen den denboraren ehuneko 50.

– NANA berritzeko: 4 ordu.

– Istripu-mutualitateko kontsultak: mutualitateko kontsultara joateko behar diren orduak inolako deskonturik gabe ordainduko dira, lan toxiko eta arriskutsugatiko plusak kenduta.

– Bulegoetako langileek, bi lanegun lizentzia edukiko dute beren gauzak egiteko.

26. artikulua. Ikasketa-bekak

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileei laguntza osagarria emango zaie, baldin eta horien seme-alabek 2022. urtean 0 eta 18 urte bitartean (biak barne) bete badituzte, eta ikasurtean behar bezala egiaztatutako nahitaezko ikasketa ofizialak egiten ari badira. Hauek dira laguntza osagarri horien guztizko zenbatekoak:

A) 0 eta 10 urte bitartean bete badituzte: 98,25 euro.

B) 11 eta 18 urte bitartean bete badituzte: 174,85 euro.

27. artikulua. Ekonomatua

Hitzarmen honen eraginpeko langile bakoitzeko, enpresak hilean 13,91 euroko ekarpena egiten jarraituko du. Ekarpen hori ekonomatuaren zerbitzuak diruz laguntzeko da.

28. artikulua. Gaixotasun arrunta eta lan-istripua

a) Gaixotasun arrunta.

Gaixotasun arruntak edo lanetik kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasunen kasuan, enpresak, urteko lehen bi bajetan, batez besteko soldata errealearen ehuneko 100eraino berrmatuko dio langileari (oinarrizko soldata eta 12 b artikuluan aurreikusitako osagarriak), 1. egunetik alta-egunera arte, eta une horretan osagarria eten egingo da. Hirugarren bajatik aurrera, gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak osatuko dira bajaren egunaren aurreko hilabetearen batz bestekoari dagokion soldata errealearen ehuneko 90eraino.

b) Lan-istripua eta lanbide-gaixotasuna.

Laneko istripuen edo gaixotasunen ondoriozko aldi baterako ezintasunetan, enpresak batez besteko soldata errealearen ehuneko 100 berrmatuko dio langileari (oinarrizko soldata gehi 12.b artikuluan aurreikusten diren osagarriak), lehenengo egunetik alta hartu arte (une horretan etengo da osagarria).

Langileren bat halako egoera batean baldin balego: gaixotasunagatik edo laneko istripu batenagatik gaitasun fisiko edo intelektuala murrizten bazaio, baina ezintasun osoa lortzeko gradura iritsi gabe; edo ezintasun hori kobratzeko, 55 urtetik gorakoei dagokien neurrian, eskubiderik ez duen denbora-tartean, irtenbidea litzateke saiatzea lortzen bere gaitasunaren mailako lanpostu bat, betiere horretarako aukera balego.

29. artikulua. Azterketak egiteko baimenak

Hitzarmen honen eraginpeko langileen lanbide- eta kultura-arloko prestakuntzari laguntzarren, titulu profesionala lortzeko ikastetxe ofizialetan matrikulatuta dauden langileek behar dituzten baimenak hartu ahal izango dituzte dagokien ikastetxeetan azterketak egiteko, eta ordainsarrietan ez dute deskonturik izango; betiere matrikulatuta daudela egiaztatzen badiote enpresari.

Eskubide hau galdu egingo du langileak ikastaroko ikasgaietatik gutxienez erdia gainditzen ez badu, aurreko azterketetara aurkezten ez bada edo ikasgai bera segidako bi deialditan gainditzen ez badu.

30. artikulua. Eginbehar publikoak betetzea

Hitzarmen honen eraginpeko langileek ordainduriko baimenak izango dituzte eginkizun publiko saihetsezinak edo betetzen duten sindikatu-karguak eragindakoak betetzeko, betiere baimen horietarako ezarritako legezko ordu-mugarekin. Langileen Estatutuaren 37.3. d) artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Zitazio judizialak ere betebehar publikoak dira hitzarmen honetan, betiere, langileari araubidez zitazioa egin badiote testigu izateko. Hortaz, ez da betebehar publikoa esku-hartze judiziala eragin duen delituaren ustezko egile, konplize edo estaltzaile izateagatik joan behar badute.

Langileen Estatutuaren 46. artikulua 1. idatzi-zatiak ezartzen duenaren arabera emango da nahitaezko eszedentzia, hau da, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du, eta eszedentzialdia indarrean dagoen bitartean, antzinatasuna zenbatuko da. Adierazitako eszedentzia kargu publiko bat betetzeko izendatu edo aukeratzeko badute eta horrek langilea laneratzea eragozten badu. Kargu publikoa utzi eta hurrengo hilaren barruan eskatu behar du langileak itzulera.

31. artikulua. Azterketa medikoak

Enpresako langileek eskubidea daukate urtean nahitaezko eta doako osasun-azterketa bat egiteko lanorduen barruan.

Ondoren zehazten diren mediku-azterketak, gai honetarako indarrean dauden legeei jarraiki, nahitaezkoak izango dira enpresa zein langileentzat:

A) Lanean hasi aurreko azterketa.

B) Urteroko azterketak.

C) Sei hilean behineko azterketa bereziak, arrisku berezien arabera, Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoak.

32. artikulua. Lanpostua gordetzea

Atxilotu eta urtebeteko epean kargurik gabe aske uzten den langilea bere lanpostura itzuli ahal izango da, eta dagokion kategorian eta antzinatasuna gordeko zaizkio.

Iritzi-delituagatik kondenatu badute langilea, baina lanera urtebete baino gehiago falta izan ez bada, eta iritziak enpresako pertsona edo gertakariekin zerikusirik ez badu, langileari bere lanpostua eta horrek ematen dituen eskubideak, antzinatasuna eta kategorian gordeko zaizkio.

Epe horiek 6 hilabete gehiago luza daitezke, betiere enpresan lanpostu hori kendu ez bada.

Borondatezko eszedentziaren kasuan, Langileen Estatutuko 46. artikuluari jarraiki, eszedentzian dagoenak lanpostuaren erreserbarako eskubidea izango du, betiere lanpostua kendu ez bada edo enplegu-erregulazioko edo kontratu-amaierako espediente batean sartu ez bada. Beharrezkoa balitz, borondatezko eszedentziagatik baja bitarteko kontratudun langileren batekin beteko litzateke.

Lanpostura itzultzea eszedentzia amaitu baino bi hilabete lehenago eskatu beharko da.

33. artikulua. Laneko arropa

Lantegiko langile guztiei urtero eskuoihal bat, buzo bat, kamiseta bat, praka bat eta alkan-dora bat emango zaie, dena aldi berean.

Txaleko bat emango zaie bi urtean behin.

Era berean, istripua dela-eta, edo arropa hondatuta edo hautsita dagoelako, eta nahita edo utzikieriatatik gertatu ez bada, dagokion data iritsi aurretik beste buzo bat emango da. Kasu horietan, hondatutako edo hautsitako arropa aurkeztu beharko da.

Langileei eta zaintzaileei bi urtetik behin jaka bat edo horri dagokion dirua emango zaie. Beharrezkoa den lanpostuetan, hala dela egiaztatu bada, lehenago emango da.

34. artikulua. Laguntza-funtsak

Langile finkoentzat bi laguntza-funts sortu dira:

1. Etxebizitza erosteko eta konpontzeko.

2. Altzariak erosteko.

1. Etxebizitza erosteko eta konpontzeko funtsa

Enpresak bost mailegu emango ditu. Mailegu bakoitza 4.935,00 eurokoa izango da, interesik gabe. Mailegatuko den gehienezko zenbatekoa 24.675,00 eurokoa izango da guztira.

Mailegatutako zenbatekoa gehienez ere 15 hilabeteko epean itzuli beharko da, modu honetan: lehenengo 3 hilabeteak gabealdikoak izango dira; 4. hilabetetik 15. hilabetera (12 hilabete) 411,26 euro hilabetean.

2. Altzariak erosteko funtsa.

Era berean, eta aurreko baldintza beretan, 940,00 euroko maileguak emango dira. Gehienez ere 4.693,00 euro mailegatuko dira.

Laguntza horietakoren bat jaso ahal izateko, agiri hauek aurkeztu behar dira enpresan:

1. Aurrekontuak.

2. Fakturak edo sinatutako ordainketa-egiaztagiriak. Mailegua jaso eta hilabeteko epean aurkeztu behar dira. Baldintza hori betetzen ez bada, mailegatutako zenbatekoa lehenengo nominetatik kenduko da.

35. artikulua. Aurrerakinak

Ezusteko kausak direla-eta aurrerakinak behar dituzten langileek 400,00 euroko aurrerakina jasotzeko eskubidea izango dute eta hilabete honi dagokion nominatik deskontatuko zaie.

Aurrerakin hori urtean lau aldiz eskatu ahal izango da gehienez ere, ordainketa-eguna iritsi baino zazpi egun lehenago gutxienez. Aurrerakina ordaintzeko egunak hilabete bakoitzaren 10etik 30era bitartean ezartzen dira.

IV. kapitulua

36. artikulua. Batzorde paritarioa

Batzorde paritarioa ezarri da hitzarmen hau interpretatzeko organo gisa. Batzorde hori hitzarmena sinatu duten enpresa-batzordeko kideek eta enpresa-zuzendaritzak osatuko dute.

Batzorde paritarioaren egoitza enpresarena izango da.

37. artikulua. Batzorde paritarioaren zereginak

Honako hauek dira batzordearen eginkizun espezifikoak:

1. Hitzarmen hau bide orokorretik interpretatzea, zuzeneko interesa duen edozeinek hala eskatuta.

2. Itundutakoa betetzen den zaintzea, gai honi buruz erakunde edo agintaritza eskudunei dagozkien eskumenak alde batera utzi gabe.

38. artikulua. Zehapenak jakinaraztea

Hutsegite larri edo oso larrien ondorioz hartu beharreko neurri edo langileentzako diziplina-zigorren kasuetan, enpresa-batzordeari entzun ondoren jakinaraziko du erabakitakoa enpresak.

Neurri hori enpresa-batzordeko kide bati aplikatzen zaionean, diziplina-neurria hartu baino gutxienez 24 ordu lehenago egingo da jakinarazpen hori.

39. artikulua. Enpresari buruzko informazioa

Enpresa-zuzendaritzak hiru hilean behin emango dio enpresa-batzordeari honako hauen berri: enpresaren egoera orokorra, inbertsioak, negozioaren bilakaera, sektorearen egoera eta merkatu-aurreikuspenak.

Epe berdinean, enpresa-batzordeari jakinaraziko zaizkio absentismo-estatistika eta -indizeak eta horien arrazoiak, lan-istripu eta lanbide-gaixotasunak eta horien ondorioak, eta ezbehar-tasak eta erabilitako babes-neurriak.

40. artikulua. Enpresa-batzordearen orduak

Enpresa-batzordeko kide bakoitzak, zereginak betetzeko, ordaindutako 20 ordu izango ditu hilean, metagarriak direnak eta kideen artean transferigarriak. Kide bakoitzak gehienez 40 ordu izan ditzake hilean.

41. artikulua. Noizbehinkako txanden orduak

Lanaldi arruntean lan egiten duten langileak txandaka hasten badira, hilabete baterako edo gutxiagorako, lehenengo 5 egunetan ordura arte egiten zuten lanaldiaren orduak ordainduko zaizkie, baldin eta lanaldi hori luzeagoa bazen. Betetzen zuten lanaldia laburragoa bazen, ordea, egun bakoitzeko denboraren aldea ehuneko 20ko igoerarekin ordainduko da langileak txandaka lan egiten duen bitartean.

Lanaldi-aldaketa hori enpresak berak eskatuko balu eta aldaketak urteko lanorduen kopuruan orduak galtzea balekar, enpresak bereganatuko lituzke ordu horiek.

Langileak berak txandakako lanaldia eskatuko balu, ordea, lan egiten dituen zortzi orduak baino ez zaizkio ordainduko.

42. artikulua. Batzarrak

Enpresa-zuzendaritzak zuzenean proposatzen dituen batzarretara joatean kontzeptu guztiak ordainduko dira. Batzar bakoitzaren iraupena alde zuzenetik zehaztuko da. Era berean, batzarra hasi aurretik enpresa-zuzendaritzak definituko du proposamena.

Enpresa-batzordeak proposatutako batzarren kasuan, langileek horietara joateko urtean ordaindutako bi ordu hartzeko eskubidea izango dute gehienez ere. Urtean zehar hitzarmen kolektibo baten onarpena bozkatu behar bada, zenbateko hori bi orduz luzatuko da, urtean gehienez 4 orduz.

43. artikulua. Bizi-asegurua

Enpresak bizi-asegurua ziurtatzen die plantillako langile guztiei, 37.310,00 euroko kapital aseguruarekin. Bada, kontingentzia hauek estaliko dira aseguru horrekin:

- Langilearen heriotza (edozerk eragindakoa).
- Langilearen ezintasun iraunkor osoa (edozerk eragindakoa).
- Langilearen ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia (edozerk eragindakoa).

44. artikulua. Aldi baterako laneko enpresak

Aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak kontratatzen badira, horien esku utzitako langileei hitzarmen honetan ezarritako baldintza ekonomiko eta sozialak bermatzeko eskatuko zaie. Betebehar hau espresuki agertuko da aldi baterako laneko enpresarekin sinatzen den langileak lagatzeko kontratuan.

Aldi baterako enpresek egindako kontratuen gehienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da.

45. artikulua. Kontratazio berriak eta langileen sustapena

Enpresako langileen prestakuntza hobea izatea eta langileak lanpostuz igotzea sustatzeko, enpresa barruan mailaz igotzeko lanpostu hutsak agertzen direnean, aurretiaz horien berri emango da, gutxienez zazpi lanegun aurretik, lanposturako eskatzen diren jakintzak eta baldintzak zehaztuta.

Eskatzen diren baldintzak bete eta, lan-kontratu finkoa izanik, aurkezten diren izangai guztiak enpresak ezartzen dituen probetara aurkeztu ahal izango dira.

Prozesu horretatik kanpo geratzen dira aginte-postuak, teknikariak eta enpleguak. Lanpostu horiek zuzendaritzak erabakitako irizpideen arabera izendatuko dira.

Bertako langileekin lanpostua bete ezin denean soilik joko da kanpora, baita behar diren baldintzak, ezaugarriak edo eskatzen diren ezagutzak dituen langilerik ez badago plantillan, edo plantillan behar adinako langile kopururik ez dagoenean ere.

Amurrio Ferrocarril y Equiposek lan-poltsa bat izango du, non enpresak ezarritako probak gainditu dituzten langile guztiak sartuko diren, baita aldi baterako kontratatuta egon direnak edo enpresan praktikak egin dituztenak ere, betiere kontratazioaren amaieran ebaluazio positiboa izan baldin badute. Ekoizpen- edo antolakuntza-beharrizan zehatzak badaude, Amurrio Ferrocarril y Equiposek poltsa horretako langileei deitu ahal izango die. Langileen poltsan ez badago bete beharreko lanpostuari egokitzen den profileko langilerik, enpresak hitzarmen honetako 45. artikulura jo ahal izango du.

46. artikulua. Prestakuntza

Amurrio Ferrocarril y Equiposek, langileen ordezkariekin batera, urteroko prestakuntza-planak garatuko ditu. Horiei esker, langileak gaituagoak egongo dira teknologia berriei eta enpresan sor daitezkeen plaza hutsei aurre egiteko.

Ikastaroak langile guztiei zuzenduta daude, nahiz eta eragindako langileek lehentasuna izango duten plazak falta badira. Plaza-kopuruaren ehuneko 10 lanpostu horiek bete nahi dituzten gainerako langileentzat utziko dira.

Amurrio Ferrocarril y Equiposek sustatu eta antolatzen dituen ikastaroak lanorduetan egingo dira; ikastaroak Amurrio Ferrocarril y Equiposerekin zerikusirik ez duten arrazoietatik baino ez dira lanorduetatik kanpo izango, eta, beraz, kasu honetan, partaidetza aukerakoa izango da.

Langileek sustatzen dituzten eta Amurrio Ferrocarril y Equiposerentzat interesekoak diren ikastaroei dagokienez, gastuak eta orduak kasu bakoitzean erabakitzen den moduan konpentsatuko dira.

Amurrio Ferrocarril y Equiposek enpresako ekoizpen- edo kudeaketa-prozesuetan aplikatu nahi dituen teknologia berrien inguruko informazioa emango dio enpresa-batzordeari.

Etengabeko lanbide-prestakuntzarako Hobetuz programa dela-eta Euskal Fundazioak egiten dituen deialdietan parte hartu edo ez ere Amurrio Ferrocarril y Equiposek erabaki beharko du.

47. artikulua. Lanpostu batzuk desgaitasunen bat dutenentzat gordetzea

Enpresak lanpostuen ehuneko 2 erreserbatuko du gutxienez desgaitasunen bat duten pertsonentzat, legean jasotzen diren baldintzetan.

48. artikulua. Lanbide-kategoriak eta -taldeak

Langile soilen sailkapena.

Langile-talde hau sailkatzeko, aintzat hartuko dira jarduera mota hauetan jarraitu ohi diren arauak, lan mota, adina, egoera eta lanbide-prestakuntzaren prozesua. Bada, langileak honela sailkatuko dira:

Peoi arruntak.

Espezialistak.

Biltegiko langile espezializatuak.

Ofizioko profesionalak.

Mendeko langileen sailkapena.

Talde honen barruan sartuko dira honako langile hauek:

Zerrenda-arduraduna.

Biltegizaina.

Motozikleten gidaria.

Kamioien eta garabi automobilen gidaria.

Makina automobilen gidaria.

Pisatzailea edo batxileroa.

Zinpeko zaintzailea edo industriako eta merkataritzako jagolea.

Zaintzen kaboa edo industriako eta merkataritzako zinpeko jagolea.

Jagolea.

Zaintzen kaboa edo industriako eta merkataritzako zinpeko jagolea.

Mandataria.

Atezaina.

Mandatugilea.

Etkezaina.

Erizaina.

Ekonomatoko langileak:

Dendari nagusia.

Dendari laguntzailea.

Izangaia.

Sukaldeko eta jantokiko langileak:

Sukaldari nagusia.

Sukaldari laguntzailea.

Sukalde-laguntzailea.

Zerbitzari nagusia edo maiordomoa.

Zerbitzaria.

Zerbitzari laguntzailea.

Telefonista.

Administrarien sailkapena.

Talde honetan sartzen diren langileak honako kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

Lehen mailako burua.

Bigarren mailako burua.

Kutzazaina.

Lehen mailako ofiziala.

Bigarren mailako ofiziala.

Laguntzailea.

Izangaia.

Saltzaile bidaiaria.

Teknikarien sailkapena.

Talde honen barruan, honako azpitalde hauek bereizten dira, agindutako zereginaren espezialitatearen arabera:

Teknikari tituludunak.

Titulurik gabeko teknikariak:

Tailerrekoak.

Bulegokoak.

Laborategikoak.

Dike eta nasetakoak.

Tailerreko teknikarien azpitaldearen sailkapena.

Teknikarien azpitalde honetan sartuko dira honako kategoria hauek:

Tailerreko burua.

Tailerreko maisua.

Bigarren maisua.

Kontramaisua.

Arduraduna.

Langilezain espezialista.

Peoi arrunten langilezaina.

Bulegoko teknikarien azpitaldearen sailkapena.

Honako teknikari hauek osatzen dute azpitalde hau:

Delineatzaile proiektugilea.

Proiektu-marraskilaria.

Lehen mailako delineatzailea.

Topografiako praktikoa.

Argazkilaria.

Bigarren mailako delineatzailea.

Kalkatzailea.

Argazkien erreproduzitzailea.

Planoen erreproduzitzailea eta artxibozaina.

Liburutegiko artxibozaina.

Laguntzaileak.

Izangaia.

Bulegoko azpitaldearen sailkapena, lanaren antolaketa zientifikoari dagokiona.

Azpitalde honetan sartuko dira honako kategoria hauek:

Lehen mailako burua.

Bigarren mailako burua.

Lehen mailako antolaketa-teknikaria.

Bigarren mailako antolaketa-teknikaria.

Antolaketa-laguntzailea.

Izangaia.

Laborategiko teknikarien azpitaldearen sailkapena.

Honako kategoria hauek daude azpitalde honetan:

Lehen mailako burua.

Bigarren mailako burua.

Lehen mailako analista.

Bigarren mailako analista.

Laguntzailea.

Izangaia.

Duke eta nasetako teknikarien azpitaldearen sailkapena.

Honako teknikari hauek sartzen dira azpitalde honetan:

Dike eta ontzitegietako buruak.

Nasetako buruak edo arduradun nagusiak.

Urpekariak eta gizaigelak.

Teknikari tituludunen azpitaldearen sailkapena.

Talde honetan, honako langile hauek sartzen dira:

Ingeniariak, arkitektoak eta lizentziadunak.

Perituak eta aparejadoreak.

Ingeniaritza eta arkitekturako laguntzaileak.

Irakasleak.

Maisu industrialak.

Proban dauden gabarretako eta itsasontzietako kapitainak, pilotuak eta makinistak.

Lan-harremanetako graduduna.

Osasun-laguntzaile teknikoak.

Kategorien eta lanbideen definizioa.

Langile soilak.

Peoiak. 18 urte baino gehiago dauzkaten eta batez ere indar fisikoa eta arreta eskatzen dituzten lanak egiten dituzten langileak dira.

16 eta 18 urte bitartekoek beren adinarekin bateragarriak diren peoi-lan arinak egin ahalko dituzte, baldin eta ikasketa-kontraturik ez badute.

Espezialistak. 18 urtetik gorako langileak dira, zeinek, lanbide baten jarduera edo zeregin espezifikoa bat edo batzuk, makina eragile, operatorio, elemental edo erdiautomatikoak artatu, entretenitu edo zaintzeko eskatzen den zeregin bat edo batzuk edo zuzeneko arduraren nahiz langileak behar dituen fabrikazio- edo ekoizpen-prozesu batean erabakigarria den zeregin bat edo batzuk eginez, gaitasun nahikoa eskuratu baitute, urtean praktikaldian ondoz ondoko edo txandakako 90 egunez gutxienez, errendimendu egoki eta zuzenarekin.

Definizio orokor horren arabera, adibidez, honako langile hauek jotzen dira espezialistatzat:

Industria siderometalurgikoetan oro har, modeloen tailerrean, aroztegian eta ebanisterian: paketatzailea eta kofratzailea.

Galdaketako tailerrean: arragoako edo suberaketako bornaria. Labezaina, garabiko makinista, oraskako edo lurzoruko moldekatzailea, makinako moldekatzailea (manipulatzailea), bizar-kentzailea, makina edo esmeril-harria, hondargailua (manipulatzailea), labezaina (manipulatzailea), krokatzzailea (iraunkorra) eta argilea.

Forjaketako eta estanzazioko tailerrean: gabiko makinista, labezaina, garabiko makinista, mailukaria, krokatzzailea (iraunkorra), estanzatzailea, prentsatzzailea (manipulatzailea), putzegilea, estampa, gasista, makinako trazatzailea, arrakalen egiazatzailea eta azertzailea eta egiazatzailea.

Zerbitzu elektrikoetan: koadroko laguntzailea eta motorren, baterien, telefonoen eta argiztapenaren zeladorea. Sailarragintzako tailerrean: leuntzailea, zulatzailea eta mailukaria.

Tailer mekanikoan: mandrinatzailea, fresatzailea, artezlea, garabiko makinista, makinista errematxatzailea, arrabotatzailea, artekaria, zulatzailea, krokatzzailea (iraunkorra), sugilea, tornularia, zorrotzailea, tresna-egilea, garabien, polipastoen, igogailuen eta abarren koipeztatzailea.

Galdaren tailerrean: labezaina, esku eta makina bidezko errematxatzailea, esku eta makina bidezko trinkotzailea, garabiko makinista, armadore laguntzailea, mailukaria, zulatzailea, puntzoi-zulatzailea, krokatzzailea (iraunkorra), sugilea, ebaki eta berotzeko soldatzailea, txantiloiegilea, zepa-biltzailea eta sufritzailea.

Soldadura-tailerrean: soldatzaile oxiazetienikoa eta soldatzaile elektrikoak.

Burdinazko tutuen fabriketan: bankuko manipulatzzailea, labezaina, gasista, probatzailea, leuntzailea, galvanizatzailea, labezaina (manipulatzailea), janta-sartzailea, esmerilatzailea, probatzailea (manipulatzailea), akabera-zerra, akaberen moztzailea, terrailaria, distiratzailea, prentsatzzailea (manipulatzailea), akabera-zerra, galvanizatzailea (manipulatzailea).

Altzairu-labeen sailetan: gasista, mutilen lehenengo maisua, lehenengo makinista, lehenengo iragatzzailea, putzuko lehenengo mutila, lehenengo koilaragilea, lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren mutila, bigarren makinista, bigarren eta hirugarren jartzailea, putzuko bigarren mutila, bigarren koilaragilea, jagolea, galdetako garabi-gidari zamaketaria, pirometrista, odol-ateratzailea, lehenengo eta bigarren txatar-biltzailea, iman bidezko garabien gidaria, soldatzailea, txatar-paketatzailea, traktore-gidaria, materiala mugitzeko garabien gidaria, mazarotatzailea, errotari nahastailea, oreen moldekatzailea, iturgina eta burdinen berotzailea.

Ijzeketako sailetan: ijelea, ijele-laguntzailea, arbastatzailea, treneko makinista, neurrien maisua, motorreko makinista, kakotzailea, makinista jasotzailea, makinista garraiolaria, totxozulatzzailea, soldatzailea, proba-egilea, totxo-tornularia, prestatzailea, trokelatzailea, bobinatzailea (makina), labezaina, labeko laguntzailea, garabi-makinista, gasista, zerra-makinista, gurdi-makinista, koipeztatzailea, berantzailea, esmerilatzailea, sailkatzailea eta zorrotzailea.

Goi-labeen sailetan: labeko maisua, maisu-laguntzailea, karga-jasogailuko makinista, lehenengo mutila, gailuen edo labeen arduraduna, lehenengo makinista, lehenengo iragatzailea, putzuko lehenengo mutila, lehenengo goilaragilea, lehenengo, bigarren eta hirugarren mutila, ordezko makinista, destilatzailea, garabi-gidaria, sugina eta jagolea.

Sukaldeko tresneriaren fabriketan: esmaltatzailea, egostailea, estanpatzailea, desugertzailea (manipulatzailea), esmaltatzaile-laguntzailea, egostaile-laguntzailea, estanpatzaile-laguntzailea.

Burdinzuriaren eta ijeketa-trenen fabriketan: ijelea, berotzailea, bikoiztailea, ijelearen lehenengo eta bigarren laguntzailea, artazi-erabiltzailea, irekitzailea, labezaina, garabi-makinista, pisatzailea, motorista eta garbiketako makinista.

Janta-artazien sailetan: garabi-makinista, labezaina, artazi-erabiltzailea (manipulatzailea), garbiketako makinista, garabiko krokatzzailea (iraunkorra) eta txapa-markatzailea.

Kuboen, komunen eta zartaginen sailetan: zartaginen, kuboen eta komunen egilea, zartaginen, kuboen eta komunen muntatzailea eta desugertzailea.

Eztainuztatzeke sailetan: eztainuztatzailea, elikatzailea, garabi-makinista, eztainuztatzaile-laguntzailea eta hartzailea.

Itsasontzi-eraikuntzako sailetan: itsasertzeke errementaria, aldamio-muntatzailea, bikeztatzailea, errematxatzailea, zulatzailea, sufritzailea, garabi-makinista, armadorea, krokatzzailea (iraunkorra), marinela, ontzitegikoa, txantiloie-egilea, ertzen estaltzailea eta brotxatzailea.

Beruna eta deribatuak fabrikatu, galdatu, zilarrez gabetu eta egiteko sailetan: labe garaien, Newman labeen, zilarrez gabetzearen, destilazioaren, kupelatzearen, txigorketaren, murrizketaren, artseniosoen, kobrez gabetzearen, arazketaren eta gozatzearen, beruna egitearen eta mineral-garbitegien maisuak, kableko, garabiko eta karga-jasogailuko makinistak, keak hartzeko ganberen arduradunak, labe garaietako edo zeharzuetoetako, Newman labeetako, labe artseniosoetako eta murrizketa-labeetako laguntzaileak, zilarrez gabetzzaileak, lingote-egileak edo berun-egileak, kolore-tailerrak, mordoak prestatzeko arduraduna, koipeztatzaileak edo manutentzio-gailuen arduradunak, mineral-garbitzaileak, errotariak eta elaborazio-laguntzaileak.

Telekomunikazio-industriak eta antzeakoak.

Ebanisteriako tailerrean: burdineria ebanisteria gainean muntatzen duena, lixagailu mekanikoko langilea, egurren lehortegiko langilea.

Tailer mekanikoetan: soldadura gogorreko soldatzailea (sopletearekin), esku edo makina bidezko bizar-kentzailea, prentsatzailea.

Piezak erretxina sintetikoekin eraikitzeke tailerrean: moldeen prestatzaile eta zenbatzailea, soldatzailea eta leuntzailea, esku edo makina bidezko bizar-kentzailea.

Muntaketako tailerrean: gailu-serieen doitzzailea, kable-formaren eraikitzailea edo txantiloitrazatzailearik gabea, ekipo-serieen muntatzailea, serieen bobinatzailea, doikuntza-serieen egiaztazailea, multzo elementalen serieen mihiztatzailea, konexioetako soldaduren egiaztatzailea, zenbatzailea eta paketatzailea.

Tutu elektronikoak fabrikatzeko tailerrean: serieko tutu elektronikoen hustailea (langilea), serieko tutu elektronikoen muntatzailea (harizpiak luzatu, eratu, moztu eta muntatu, saretoak egin eta muntatu, plakak muntatu eta abar), materialen tratamendu bereziak (konposatuak, pisaldiak, hariztien estaldurak, materialen tratamendua eta garbiketa eta abar), tutu elektronikoen serieen egiaztatzailea, beiraren garbitzailea, moztzailea eta kalibratzailea, oinak egiteko eta buruak seriean zabaltzeko makinak (langilea), urratsak estaltzeko makinak (langilea), albainutzailea eta zorro-egilea, paketatzailea eta biltzailea.

Lanparak fabrikatzeko industriak: makinak atala: makinistak (platerak egin, hagatxoak moztu eta kalibratu, tutu txikiak moztu, tutu txikiak kalibratu eta erre, oinak egin, kakoak jarri eta espiralak muntatu, espiralak egin, espiralak moztu, haizea eman eta hutsa egin, igeltsua jarri, lanparak sailkatu eta soldatu, anpoilak eta tutuak busti eta prestatu, kuartozko tutuak zapaldu, anpoilak metalizatu); manipulatuaren atala: manipulatuzaileak (pisatzeko eta destilatatzeko gailuak, harizpiak eta espiraletarako mandrila, tutu txikiak moztu, birbobinatu, hari molibdenoa, fosforoak hauts bihurtzeko gailuetako espiralak muntatu eta soldatu, zorroak erre, sustatu, soldatu eta eseki, baita zerrendatutakoek baino prestakuntza edo arreta handiagoa eskatzen duten lan guztiak ere, hala nola oinak eta elektrodoak kontrolatu, paketatu, muntatu eta soldatu edota anpoilak labean erre). Espezialistatza joko dira zerrendatutakoaren antzeko lanak egiten dituzten langile guztiak, bai metalurgiaren adarrean, bai industria horren adar laguntzaileetan, eta espezialistatza joko dira, halaber, ofizioko langileek izendatzen dituzten eta oinarrizko zereginak bakarrik egiten dituztenak, baldin eta, atal honen lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera, profesionali eskatzen zaizkien ezagutzak behar ez badituzte.

Biltegiko langile espezializatua. Enpresa siderometalurgikoetako biltegiaren aritzen dira, berez ofizioa eratzten ez badute ere eta espezialitate handirik eskatzen ez badute ere nolabaiteko abilezia behar duten lanak egiten. Lanon artean, honako hauek daude: paketatu edo biltzea, enbalaje eta elementu zehatzak edukitzeko prestakuntza-lanak barne hartuta, piezak birzenbatu, zamatuta eta sailkatzea, baita piezak jaso edo entregatzea ere, txarteekin edo antzeko dokumentuekin, eta antzeko edozein lan.

Profesional siderurgikoak. Beharrezko eskarmentua bildu eta gaitasun nahikoa dutela erakutsi ondoren, zerrendatzen diren eginkizunak betetzen dituzten langileak dira; egokitzen diren lanbide-kategorietan kokatuta daude.

Lehen mailako profesional siderurgikoak.

Lehen mailako ijalea. Kontramaisuaren berehalako aginduen pean, ijezketa-trean batean buru da, eta bera arduratzen da trea ondo dabilela ziurtatzeaz eta trea eragiten dituen profilak kalibratzeaz. Ezin hobeto ezagutzen ditu kutxa guztien zilindro-jokoak eta profilak, eta giden eta erreminten kokalekua kontrolatzen du.

Txapa fineko ijezketa-trean batean, fabrikazio-lanetan, bigarren mailako ijalea lehen mailako ijalearekin batera aritzen bada, txandaka, bigarren mailakoari ez zaio lehen mailakoaren kategoria emango.

Labe garaietako lehenengoa. (Labe garaietako) ahoko maisua ere esaten zaio; bada, kontramaisuaren aginduetara eta labea nola dabilen jakinda, labearen berariazko lan-prozesuak behar dituen maniobra (kanalak nahiz tobera zulatu, itxi eta egoera onean jartzekoak) agintzen dituen langilea da. Zoladura-pisuko langileekin batera, adierazitako lanak egiten ditu. Duen eskarmentuarekin, lehen begiratuan jakin ditzake burdinaren eta zeparen arintasunaren kalitatea eta maila, eta bera arduratzen da probak egiteaz.

Altzairu-labeetako lehenengoa. Labezain maisua ere esaten zaio. Kontramaisuaren aginduetara, labea behar bezala dabilela eta ondo zaintzen dela ziurtatzen du, eta, halaber, materialen kargak banatzen ditu. Bestetik, labeko espezialisten eta peoien gaineko aginte-ardura dauka.

Lehenengo kategoriako hiru espezialitate horiek arduratuko dira zehaztutako lan osagarriez, eta lan guzti-guztiak ezin hobeto egiteko gaitasun nahikoa dute. Eginkizun bakoitzak ezaugarri bereziak dituenez, espezialitate honetako langile bakarra egon ahalko da ekoizpen-unitate eta txanda bakoitzeko.

Bigarren mailako profesional siderurgikoak.

Bigarren mailako ijalea. Operazio osagarrietan, ijaleari laguntzen dio, eta haren aginduetara dago. Probak kalibratu behar ditu, eta profilen akatsak zuzendu; bestalde, berari dagokio amaierako tresneria prestatzea.

Labe garaietako bigarrena. Labeko lehenengoaren aginduetara, haren operazio osagarriak egiten ditu, eta lanotan laguntzen dio.

Bigarren kategoriako bi espezialitate horiek lanpostuaren berezko lan guzti-guztiak emaitza onenarekin egiteko gaitasun eta trebetasun nahikoak izango dituzte, eta bakarra egon ahalko da ekoizpen-unitate eta txanda bakoitzeko.

Altzairu- eta metal-bihurgailuetako lehen mailako labezainak. Saileko edo ataleko buruaren aginduetara, gai da lamaren kolorearen arabera operazio-maila zehazteko, zepatzeko, zama-lanetan aritzeko, entsegu-probeta motaren arabera bihurgailuaren martxa interpretatzeko, bihurgailuaren funtzionamendua erregulatzeke eta labearen toberak erregulatzeke.

Altzairu- eta metal-labe elektrikoetako lehen mailako labezainak. Maisu atalburuaren aginduetara, gai da erregulazio elektrikoko aginte-mahaiak maneiatzeko, hozketa maneiatzeko, zama-lanak egiteko, bobeda aldatzeko, elektrodoak aldatzeko, galdak egiteko eta zarataren arabera galden egoera jakin eta berriz zamatzeko.

Kobrea bihurtzeko fingailuko labezaina. Honako operazio eta eginkizun hauek egiteko gaitutako langilea da: labea material solido edo likidoarekin kargatzea, behin edo hainbat aldiz, guztiz bete arte. Galdatze-prozesua zaintzea, fuel-olioaren lama erregulatuz. Galdatze-laginak ikusita, aire-injektoreak ezpurutasun guztiak ezabatzeke behar duen denbora kalkulatu behar du, eta finketa-lana prestatzeke behar den beroketa-maila eman; hau da, lortu nahi den kobre motarako behar den prestakuntza taxutu behar du, eta, gutxienez, 5 edo 6 urteko eskarmentua izan.

Kobre-labe garaietako labezaina. Labea oro har nola dabilen daki, eta kanalak nahiz tobera zulatu, itxi eta egoera onean jartzeko maniobrak egiten ditu; halaber, pausagailuaren egoera ezagutzen du, eta odola ateratzeko agintzen.

Hirugarren mailako profesional siderurgikoak.

Langile kalibratzailea. Kontramaisuaren edo ijelearen esanetara, trenaren kalibrazioan jarduten duten mekanismoen eragintza kontrolatzen du.

Labe bertikaletako labezaina. Kontramaisuaren aginduetara, erregaiak erregulatu eta kontrolatzeko gailuak maneiatzen daki, eta labea ondo ibiltzeko behar diren operazioak egiten ditu; era berean, ijetzeko berriro berotu den materialak tenperatura-baldintza egokiak biltzen dituela ziurtatzen du.

Labe garaietako arduraduna. Labe garaiko estufak ondo dabilzala eta ondo zaintzen direla zaintzen du, eta ezin hobeto ezagutzen ditu eginkizun guztiak.

Adreilu-fabriketako labezainak edo labe erregogorretako labezainak. Adreilu erregogorra egosteko labeen funtzionamenduaz eta kontserbazioaz arduratzen da, eta arduradun baten esanetara dago.

Hirugarren kategoriako lau espezialitate horiek lanpostuaren berezko lan guzti-guztiak emaitza onenarekin egiteko gaitasun eta trebetasun nahikoak izango dituzte, eta bakarra egon ahalko da ekoizpen-unitate eta txanda bakoitzeko.

Altzairu- eta metal-labe elektrikoetako bigarren mailako labezainak. Lehen mailako labezainaren laguntzaileak dira, eta haren oso antzeko lana egiten dute, baina haren ardura-mailarik izan gabe.

Burdinazko godaleten labezain nagusiak. Fusioko buruaren edo laborategiko buruaren zuzeneko aginduetara, honako hauek egiteko gaitasun berezia dute: haizea fusio-kadentziaren arabera erregulatzea, toberak ureztatu eta garbitzea, godaletaren egoera fusio-tanten kolorearen eta formaren arabera interpretatzea, alboaren altuera kontrolatzea, kalitate-probetak interpretatzea eta egin beharreko konponketak egitea.

Indukzio-labeetako labezainak. Langile hauek, fusioko buruaren edo laborategiko buruaren esanetara, honako hauek egiteko gaitasuna dute: labea kargatu eta deskargatzea, erregulazio elektrikoak egitea, hozketa zaintzea, galda egitea, zepatzea eta kalitate-laginak interpretatzea.

Kobre-labe garaietako labezainak. Zepen irteera zaintzen du, eta laginak ateratzen; lehen begiratuan, badaki zein den arintasunaren maila. Grainala-eraketa zaintzen du, eta lehen mailako labezainari laguntzen dio hark behar duen orotan.

Ofizioko profesionalak. Langile hauek, lanbide heziketako ofizialtza graduan irakasten diren lanbideetan eskuratu daitekeen mailako prestakuntza eta ezagutza edukita, nahitaez enpresan egin behar diren gaitasun- eta gaikuntza-probak gainditu dituzte, bai eta ezagutzen, iniziatiben eta erantzukizunen arabera dagozkien lanak egiteko kategoria lortu ere. Gaitasun- eta gaikuntza-probak gainditutakoan, hirugarren mailako ofizialen kalifikazioa lortu dute.

Bigarren mailako ofiziala. Enpresaren barruan hirugarren mailako ofizialaren kalifikazioa eskuratuta, enpresak ezarritako proba teoriko-praktikoak gainditu ditu, lanak perfekzio- eta kalitate-maila nahikoarekin egiten dakiela erakusteko.

Lehen mailako ofiziala. Enpresaren barruan bigarren mailako ofizialaren kalifikazioa eskuratuta, enpresak ezarritako proba teoriko-praktikoak gainditu ditu, bere espezialitateko lanak eta, bere lanbidekoak izaki, ezagutza, ahalegin eta trebetasun bereziak eskatzen dituzten bestelako lanak egiten dakiela erakusteko.

Lanbide-talde honen barruan, honako lanbide hauek sartzen dira:

Modelogilea. Honako operazio eta zeregin hauetan guztietan aritzeko gai da: egurra duten piezen edo elementuen eta deformaezinen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea, beharrezkoa den mailaraino; pieza edo elementu horien kanpo- eta barne-erreproduzio positiboak egitea (hots, produkzio negatiboak edo moldeak eta arrak egitera bideratutako modeloak eta kutxak, silueta-txantiloak edo terrailak egitea) eta aurreikus daitezkeen kontraesanengatik eskatzen diren dimentsioak ematea, galdatu behar den metal motaren arabera; materialaren gehiegizko lodierak –aurreikus daitezkeenak– balioestea, akaberari buruzko krokisetan edo planoetan nahiz pieza edo elementu horien makinaren planoetan eskatzen diren betekizunak asebetetzeko; oro har, moldeak eta arren kutxak antolatzeke erarik onena ezagutzea, hala behar izanez gero zatietan bereizi ahal izan daitezen, lehenengoak irten eta bigarrenak atzeratu ahal izateari begira, eta arren aurrealdean edo euskarrien kokapena eta dimentsiorik onenak zehaztea.

Moldekatzailea eta argilea. Langile hau honako operazio eta zeregin guzti hauetarako gaituta dago: makinetako edo mekanismoetako piezen edo elementuen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, harea edo buztina nahastuta, metal horien edo fusiorako metala zein zukua egitera bideratutako pieza horien moldeak edo arrak egitea; moldeetan edo arretan zatiak bereizteko gainazalak aurreikustea, baita horiek janzteko benedoreen, hozkailuen eta arnasguneen, euste-bitartekoen eta mazaroten kokapen, forma eta dimentsio onenak zehaztea ere; haren nahasketak prestatzea eta kutxa mota eta dimentsio egokienak zehaztea; molde eta ar egokien armatua eta galkaketa-, haizate-, argitze- eta berotze-maila onak lortzea eta molde eta ar horien galda zuzentzea, baita desmoldekatzea ere.

Trazatzailea. Langile hau honako operazio hauek egiteko gai da: makinetako edo mekanismoetako piezen edo elementuen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta pieza edo elementu horiek tamaina naturalean erreproduzitzea; halaber, planoetan eta krokisetan oinarrituta, erreferentziatzko begi eta lerroak adieraztea piezetan, langile profesionalak edo espezialistek ezin hobeto mekaniza ditzaten.

Izendapen bera jaso ahal du galdarategian edo eraikuntza metalikoetan antzeko lanak egiten dituen galdarategiko langileak.

Galiboen trazatzailea. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaituta dago: planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta tamaina naturalean erreproduzitzea eta itsasontzi bat osatzen duten zuakerrak edo piezak pilotatzeko patroi gisa balio duten txantiloak eta galiboak neurri zehatzetan trazatu eta egitea.

Errementari-forjaria. Langile hau honako lan hauek egiteko gaituta dago: burdinazko edo altzairu forjatuzko piezen edo elementuen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, erdiproduktu borobilen, janten edo jantoiaren, sabaien eta abarren forma eta dimentsio onenak balioetsi eta kalkulatzeko, pieza forjatuak ahalik eta gehien aprobetxatuz dezan materiala; material horiek luzatu, lautu, lehorreratu, trokelatu, bigormatu, okertu, lepegabetu, moztu, soldatu, estanpatu eta enbutitzea, kasuaren arabera, perkusioaren bidez edo beroan konprimatuz, ahalik eta gelaxka gutxien erabilita.

Tornularia. Honako operazio eta zeregin hauek guztiak egiteko gai da: mekanismoetako eta makinetako elementuen eta piezen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, edozein tornu motatan (aireko puntuen eta puntu bertikalen artean), honako lan hauek egitea: lepoen eta zango-erdien muntaketa eta zentraketa, zilindraketa, torneaketa konikoa, formaren torneaketa, hariztaketa mota guztiak, berresketa, mandrinaketa, trazaketa eta planeaketa eta esmerilaketa.

Kategoria hauxe izango du zilindroen tornulariak; betiere, artikuluan ezarritakoaren araberrako ikaskuntza egin badu.

Artezlea. Honako operazio eta lan hauek guztiak egiteko gai da: mekanismoetako eta makinetako elementuen eta piezen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, artezteko edozein makina motatan (arruntetan, unibertsaletan eta berezietan) eskatzen diren tolerantziekin, honako lan hauek egitea: planifikatzea, kanpoko eta barruko zilindroak jartzea, konoak artezteko, aurpegitzea, lepoak, zango-erdiak eta beste profil batzuk amaitzea eta ebaketa-erreminta mota guztietan eranstea, material edo zirkunstantzia bakoitzarekin erabili beharreko harrien eta piezen gradu- eta gogortasun-kalitateak ezagututa, eta egiaztatze eta neurtzeko erabilitako doitasun-tresneria maneiatzea eta zuzentzea.

Doitzailea. Honako operazio eta lan hauek egiteko gai da: mekanismoen eta makinaren eta haien elementuen eta piezen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, elementu horien gainazala marraztu, mareatu eta amaitzea, haien artean egokitzea edo doitzea ahalbidetzeko moduan, joko edo lasaiera aldakorrekin, egoeraren arabera, eta, horretarako, zizela edo gubila ez diren beste tresna edo erreminta eta gauza batzuk, karraka-barrietate desberdinak eta esmeril hautsa erabiltzea eta makinak eta mekanismoak muntatzea, lasaierak nibelatzea eta piezak orekatuta daudela ziurtatzea, hala eskatzen badute.

Burdina-galdaragilea. Honako operazio eta lan hauek guztiak egiteko gaituta dago: arotze-riako edo egitura metalikoko edo galdaragintzako krokisak dituzten planoak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, trazatu, txantiloak egin, zuzendu, markatu, moztu, eskuilatu, trokelatu, zulatu, okertu, armatu, otxabutu, errematxatu, zizelatu, trinkotu eta muntatzeko lanak egitea, soplete bidez berotu eta ebakitzea eta txapak edo profilak beroan modelatzea, mailu bidez.

Kobre-galdaragilea. Honako operazio eta lan hauek guztiak egiteko gai da: kobrean, letoian eta beste metal batzuetan oinarritutako eraikuntzen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, txantiloak osatzen dituzten elementuak irabiatu, luzatu, soldatu, trazatu, txantilo bihurtu, zuzendu, moztu, zulatu, okertu, armatu, errematxatu eta muntatzea eta kobrezko, letoizko edo burdinazko tutuak ebaki, hariztatu, okertu, doitu, bridak soldatu, enkoardatu eta sopletearekin berotzea, deformaziorik gabe eta planoetan adierazitako forma eta erradioen arabera.

Latorrigile-planogilea eta fumista-berogailuegilea. Honako operazio hauek guztietan gaitutako langilea da: eraikinetako ur-, gas-, saneamendu-, sukalde- eta berogailu-instalazioen krokisak irakurri eta interpretatzea, baita berunean, zinkean eta latorrian oinarritutako eraikuntzen ere, eta, haien arabera, egokitzen den tresneria erabilita, trazatu, okertu, moztu, errematxatu, soldatu, kokatu eta hozkatzeko lanak egitea.

Soldatzailea. Honako operazio eta lan hauek egiteko gai da: planoetan eta krokisetan soldaduretarako behar diren material-ekarpenen formari eta kopuruari buruz jasotzen diren jarraibideak irakurri eta interpretatzea, soldatu behar diren elementuak finkatzeko ohiko gailuak eta serieko lanetarako ohiko galiboak behar bezala ezagutu eta erabiltzea, elektrodoa erans-teko metalaren hagatxo mota eta neurriak hautatzea (lan bakoitzerako egokiena), altzairu edo burdina urtuz egindako elementuak ahalik eta deformazio txikienarekin goritu, bete, suberatu, moztu eta soldatzea, soplete oxiazetilenikoarekin edo arku elektrikodun gailuekin ijertuz eta forjatuz, eta metal bigunekin, brontzearekin, aluminioarekin eta abarrekin antzeko lanak egitea. Kategoria hau soldatzaile elektrikoarentzat nahiz oxiazetilenikoarentzat da.

Elektrikaria. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaituta dagoen langilea da: instalazio eta makina elektrikoen eta haien elementu laguntzaileen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, instalazio eta makina horiek muntatzea, tentsio baxuko eta altuko aireko nahiz lurpeko linea eroaleak jartzeko behar diren lanak egitea, baita telefonikoak ere, edozein instalazio telefoniko jartzea, instalazio telefonikoak eta argi-instalazioak jartzea, akatsak bilatzea eta korrante alternoko eta korrante zuzeneko motorretan, transformadoreetan eta edozein motatako gailuetan harilketak eta konponketak egitea. Lineen nahiz gailuen muntaketan zerrendatzen diren piezak (grapak, mentsulak eta abar) eraikitzea eta instalazio elektrikoetako matxurak konpontzea, transformadoreetako motorrak eta olioak lehortzea eta metagailuko bateriak muntatu eta konpontzea.

Urregilea. Honako operazio eta lan hauek egiteko gaituta dago: zilargintza-artearen planoak, marrazkiak eta krokisak irakurri eta interpretatzea, formei, eraikuntzari, armatuari eta soldadurari dagokienez; soldatzeko elementuak finkatu eta kokatzeko erabili ohi diren bitartekoak ondo ezagutu eta erabiltzea; askotariko soldadura motak eta kalitate egokiak hautatzea eta errearen nahiz zilarraren legeetan elementu horiek edota metalek –gogorrek eta ez hain gogorrek– eduki behar duten aleazioa aukeratzea, pertz desberdinetan jarritako piezak deformaziorik gabe onar dezan soldadura; urrea, zilarra, kobrea, alpaka, aluminioa, altzairu herdoilgaitza, brontzea eta metal bigunak berotu, bete, doitu, limatu, zerratu, zuzendu, lautu, luzatu, nabarmendu eta okertzea, ahalik eta deformaziorik txikienarekin, gaseko sopletearekin eta soplete oxiazetilenikoarekin.

Tailagina. Langile honek honako operazio eta lan hauek egiten ditu: urregintzako piezen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea, metalak izan behar dituen gogortasuna eta luzamendua aintzat hartuta, diskoek formarik eta dimentsiorik onena izan dezaten, ahalik eta aprobezkoak handienarekin; mandril deformaekin ekonomikoki egin eta eraikitzea, ahal den tokiraino, barne- eta kanpo-erreproduzioekin, eta, planoen eta krokisen arabera, piezen txantiloak egitea eta piezak irauli, inguratua eta erlaitzea, obaloan torneatzea eta mailukatzea, deformaziorik eta lepogabetu gabe.

Zizelkari-bozelkaria. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaituta dago: Marrazketa linealari eta irudiei buruzko ezagutza zabala edukitzea, produzitu eta erreproduzitzeko, piezaren gainean agindutako marrazkia handituz edo murriztuz, lehenik bozelkatzeko eta gero zizelkatzeko, materiala lepogabetu gabe; garai bakoitzean lanak egiteko egon diren estiloak eta moldeak ezagutzea; enkargatzen zaion obraren kostua aurrez kalkulatzeko eta lana perfektuagoa izan dadin ezinbestekoak diren gogortasun-maila desberdinetako metalen aleazioak ezagutzea.

Grabatzailea. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaituta dago: grabatu behar den piezaren gainean delako marrazkia produzitu eta erreproduzitzeko behar diren ezagutzak (marrazketa linealari, apaindurari eta irudiari buruzkoak) edukitzea; garai bakoitzean lanak egiteko egon diren estiloak eta moldeak ezagutzea eta agintzen zaion lanak izango duen kostua aurrez kalkulatzeko.

Sarrailagilea. Marrazketari buruzko ezagutzak izanda, bere espezialitateko plano bat garatzeko gai da; planoaren xehetasun nagusiak tamaina naturalera handitzen ditu, eta bere lanpostuari dagozkion lan mota guztiak egiten; hala nola, eskaileren, ate artistikoen, burdin hesien, leihate metalikoen eta antzekoen balaustradak.

Fresatzailea. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaituta dago: mekanikako elementuen edo piezen planoak edo krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, fresatzeko edozein makina arruntetan (bertikaletan, unibertsaletan eta engranajekoetan), muntaketa-, fresaketa-, mozketa- eta mandrinaketa-lanak egitea.

Mandrinatzailea. Honako operazio eta lan hauetarako gaituta dago: makinako eta mekanikako elementuen edo piezen planoak edo krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, mandrinatzeko edozein makinatan, hustuketa-lanak, zulo zirkularren zabalketa-lanak eta doitasun-lanak egitea, baita gainazal konikoetan eta makina horietan egin daitezkeenetan ere.

Galvanizatzailea, zilarreztatzailea, nikelatzailea, kromatzailea eta abar. Bainu galvanogeti-koetan mota guztietako manipulazioak, prestaketak, kontserbazioak, garbiketa mekanikoak, garbiketa kimikoak eta elektrolisiak egiteko gaitasuna duten langileak dira.

Itsasertzeko arotza. Honako operazio eta zeregin hauetan aritzeko gaituta dagoen langilea da: bere lanbidearen berezko erremintak maneiatzen ditu (hala nola, aizkorak, lauzak...), eta honako hauek egiten: ontzien lineen trazadura ezagutzea, zuakerrak nibelatu eta enkoadratzea, baita zuakerrak eta askotariko ontzigainak enbragatu eta zurkaiztea ere; itsasontzietako, gasolinoetako eta egurrezko itsasontzietako ontzigainak eta kasetoiak egiteko egur motak ezagutzea; ontziak eta gasolinoak planoen arabera eraikitzea, baita trazatzea ere; itsasontzietako ontzigainak eraikitzea, taulen topeen distantziak ezagututa; erabiltzen ari diren ontzigainak eta ontzigain berriak bikeztatu eta klaskatzea, brearen prestaketan sartu behar den metxa-kopurua ezagututa; ontzigainetan etxolak, tanbutxuak eta sabai-leihoak eraikitzea, planoen gainean, hermetikotasun perfektuarekin; ezpeleta-makilak edo karga-eskorak eraikitzea, planoen gainean. Lan hori guztia denbora normaletan egin behar da, ahalik eta egur gutxiena galduta.

Hargina. Honako operazio eta zeregin hauek egiten ditu: harri landuen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea (oro har, harlangaitzak, harlanduak, harlanduxkoa eta debela molduratuak edo molduratu gabeak izaten dira), eta, haien arabera, finkatutako elementua lortzeko ekonomikoki egokiena den harri-blokearen dimentsioak zehaztea; aurpegi edo paramentu desberdinei dagozkien txantilo positiboak edo negatiboak trazatzea, edo siluetak eta lerro nagusiak zuzenean markatzea; harriari lanketa egokia egitea eta, horretarako, mailuarekin edo mazoarekin ertzak nabarmentzea, aurpegiak edo paramentuak beheratu edo berdintzea eta punta-zizelarekin, pikotxarekin, sardearekin, mutxardarekin eta harmailuarekin moldurak moldatzea; gradina finarekin eta zizelarekin tiradak edo loturak egin edo ateratzea eta, egokitzen denean, lotzea; harlangaitzezko ohiko fabrika-lanak eraikitzea; ohiko aparailu-sistemak ezagutu eta egitea, sokekin edo ilintiekin, harlanduzko fabrika-lanekin konbinatuta.

Igeltseroa. Honako operazio eta lan hauek egiteko gai da: obrako edo fabrikako planoak eta krokisak irakurri eta lursaillean bertan zuinkatzea eta, haien arabera, adreiluekin hormak, paretak eta trenkadak eraikitzea, ondo galgatutako eta gilbordurarik gabeko mortero-karga onargarriak erabilia; hainbat motatako arkuak, gangak edo gangatilak eraikitzea, ahalik eta mortero-kargarik txikienarekin, eta, hala egokitzen denean, adreilu landuekin, hezurrera ezin hobeto egokitze; moldurak bezatu, emokatu, zuritu, luzitu, lataratu eta korritzea, tioldarrak eta gainerako apaingarri arruntak egitea eta pisuak eta hormak lauzekin edo azulejoekin estaltzea eta hodiak edo makinatako piezak amiantozko produktuekin eta antzekoekin estaltzea.

Ebanista eta arotza. Langile hauek egurrezko eraikuntzen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzeko gaitasuna dute, bai eta egokitzen diren tresnekin trazatzea, zerratzea, arrabostaz leuntzea, ahoa jartzea, mihia egitea, ezkutatzea eta gainerako mihiztaketa-lanak egitea ere, planoetan jasotzen diren dimentsioekin bat.

Pintore dekoratzailea. Langile hau honako operazio eta lan hauek egiteko gaituta dago: burdinaren, egurraren, luzituaren edo iztukuaren gaineko tenpera- edo olio-pinturaren inguruko planoak edo krokisak, dekorazio-eskemak eta zehaztapenak irakurri eta interpretatzea eta pintura eta prestaketa egokienak atontzea, margotu behar den gainazalaren egoeraren eta nahi diren koloreen arabera; oihalean edo egurra imitatzen edo beste material batzuetan koloreak atondu, landu, moteldu, polizatu, garbitu, margotu eta akabatzea eta idazkunak xerratu, bernizatu, brotxatu, patinatu, urreztatu eta margotzea.

Larrukigilea. Larruarekin hainbat objektu egiteko gai da; hala nola, eskuzorroak, transmisio-uhalak, kutxak, poltsak, maletak, aparailuak eta abar.

Tapizatzailea. Honako operazio eta zeregin hauetarako gaitutako aditua da: tapizak eta gortinak egin, apaindu eta jartzea, altzariak edozein ehun eta larru motarekin apaintzea eta gelak edo aretoak apaintzea.

Tren-makineta makinista. Langile hau honako operazio eta lan hauek egiteko gai da: tren-makinak gidatzea eta ondo zainduta eta garbi daudela zaintzea; kontrol-gailuak, trafiko-seinaleak eta maniobrak, tren-makina osatzen duten zatiak, sutondoa, kebidia, galdarak, mekanismoak eta armazoiak edo euskarria, segurtasun-gailuak, manometroak, maila-adierazleak, segurtasun-balbulak, tapoiak, fusibleak eta abar ezagutzea eta langile espezializaturik behar ez duten konponketa errazak egitea ibilbidean.

Bitxigilea. Langile honek metal preziatuak lantzen ditu, eskuz, eta bitxi pertsonalak nahiz erlijiosoak sortzen, lan horiei eskatzen zaien zuzentasunez eta errendimendu egokiarekin.

Erlojugilea. Langile honek, erlojuak egiten edo konpontzen dituenek, horretarako behar diren lan guztiak egiten ditu, ondo egin ere, erloju arrunt guztietan (segundo-kontagailuetan, kronografoetan, kilometro-kontagailuetan...).

Zerrari mekanikoa. Langile honek, makineriaren mekanismoa eta zinta mota desberdinen muntatze-, zorrotze- eta soldatze-lanak ezagututa, egurra zatikatzen du, bai plantan bertan irakurrita, bai trazatzailearen oharrak irakurrita, bai moztu beharreko piezak egurrean bertan trazatuta.

Zizelkaria. Eskuz lan egiten duen langile hau gai da estilo eta garai desberdinetako marrazki artistikoak interpretatzeko eta, lanbidearen berezko tresnekin, egurrean handituz edo murriztuz, agindu zaion marrazkia edo berak asmatutakoa egiteko.

Gailuen doitzaila (telekomunikazio-industriak). Langile hau, telekomunikazio-industrietan eta antzekoetan, honako zeregin hauek betetzeko gaituta dago: fabrikatu behar diren gailuetako piezen, elementuen eta multzo partzial edo guztizkoen planoak eta krokisak, konexio-diagramak eta fabrikazio- nahiz doikuntza-zehaztapenak irakurri eta interpretatzea. Mihiztaketa- eta hari-lkatze-lanak egiten ditu, gailuak, tresnak eta makinak erabiliz. Produktorearen funtzionamendu mekaniko eta elektrikoa doitzen du, eta akatsak aurkitu eta konpontzen. Hori guztia, dagokion zuzendaritza teknikoaren pean eta errendimendu zuzenak ziurtatzeko moduko denboretan.

Talde elektronikoen hustailea (telekomunikazio-industriak). Langile hau, telekomunikazio-industrietan eta antzekoetan, honako eginkizun hauek betetzeko gai da: tutu elektronikoen, hutseko instalazioen eta ekipo elektrikoen planoak eta krokisak eta hustuketa-prozesuen zehaztapenak irakurri eta interpretatzea: neurketa irakurtzea. Tutu elektronikoa fabrikatzean erabili ohi diren materialei eta beirei buruzko ezagutza zabala edukitzea. Tutu elektronikoa mota oro hustu, soldatu eta moztea; tutu elektronikoa mota guztiekin eraiki, soldatu eta moztea; beira mota guztiekin (baita kuartzoarekin ere) eraikitzea. Matxurak aurkitzen ditu hustuketa-tutu eta -instalazioetan. Hori guztia, dagokion zuzendaritza teknikoaren pean eta errendimendu zuzenak ziurtatzeko moduko denboretan.

Beira-putzegilea (telekomunikazio-industriak). Langile hau, telekomunikazio-industrietan eta antzekoetan, honako zeregin hauek betetzeko gaituta dago: tutu elektronikotarako piezen, elementuen eta multzoen planoak eta krokisak eta haien fabrikazio- eta doikuntza-zehaztapenak irakurri eta interpretatzea. Bankuko eta eskuzko soplete mota guztiekin lan egitea, baita torneekin, oinak egiteko makinekin, buruak zerratzeko makinekin eta fabrikazio mota horietan erabiltzen diren makina eta gailu guztiekin ere, mota desberdinetako beira erabiliz (baita kuartzoa ere). Beira garbitu, kalibratu eta moztea. Hori guztia, errendimendu ona ziurtatzen duten denboretan.

Egiaztatzailea. Langile honek materialetan eta abarretan egindako lanak ikuskatzen edo egiaztatzen ditu, eta makineta edo mekanismoetako piezen eta elementuen planoak, krokisak eta eskemak irakurtzeko gaitasuna dauka; halaber, pieza elektrikoak eta egiturak, armadurak, gangak eta abar ikuskatzen ditu, haien gainazalak oxidazioaren aurka margotu badira, edota, aurkezpena ona izan dadin, fabrikatzen ari diren edo amaitu diren piezak edo mekanismoak behar bezala egiten ari direla edo egin direla egiaztatzen du, baita patroï-txantiloïak trazatzen eta neurri zehaztuta eginarazten ere. Bestetik, karrakate-, pikate-, leuntze- eta margotze-lanak behar bezala egin direla egiaztatzen du, eta akatsen edo errefusen fitxak egiten, galdara-lanen presioak, konportak, tutuak, konexioak, harilak, zintaztatzeak, errotazio-makinen entseguak, errotoreen orekatze mekanikoak (orekagailuen bidez), soldaduren eta errematxkeen itxura, piezen mekanizazioa, piezen muntaketa, gailuen eta makinen funtzionamendua eta akabera ikuskatzen, tresneria, mikrometroak, kalibreak, erregelak, metroak, konpasak, neurri elektrikoak gailuak, proba-lanparak, lupak eta abar erabilita. Azkenik, enpresaren nazioko edo nazioarteko arauak ezagutu beharko ditu, baita DIN edo ISA tolerantziak ere.

Elektrikari elektronikoa. Langile honek, elektronikan erabiltzen diren eskemak, diagramak eta sinboloak ezagututa, baita irratiko eta irradi-maiztasuneko transformadoreak, balbula elektronikoa, tentsio-arteagailuak eta -birsorgailuak, tentsio-zirkuitu eta -aldagailuak, zirkuitu oszilatuak eta iraunkorrak, irratia eta irradi-maiztasuna sortzen dituzten obra senidalen eta ez-senidalen sorgailuak, zelula fotoelektrikoko itzultzaileak, sintoniako zirkuitu komertzialak eta industrialak, motorren abiaduraren erregulazio elektronikoa, ekipo ultrasonikoak, indukzio-labeak eta abar ezagututa ere, ekipo industrial elektronikoa eraiki, konpondu eta kalibratzeko gaitasuna dauka.

Mantentze-lanetako ofiziala. Langile hau, doikuntzari, soldadurari, galdaragintzari eta elektrizitateari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoa edukita, honako lan hauek egiteko gai da: piezen, egitura metalikoen eta instalazio elektrikoak planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea; pieza, egitura eta instalazio horiek trazatu, markatu eta amaitzea, tolerantzia aldakorrekina doitu ahal izan daitezen, doitzailaren berezko tresnak erabilita, eta makinak eta mekanismoak muntatu eta desmuntatzea; soldadura mota desberdinak ezagutzen ditu, baita soldadurarako material-ekarpenak ere; elektrodorik egokiena hautatzea, burdinazko materialak eta burdinazkoak ez direnak soplete oxiazetilenikoarekin nahiz arku elektrikoarekin landu, bete, moztu eta soldatu ahal izan daitezen; trazaketari, txantiloïak egiteari, zuzenketari, mozketari, zulaketari, okerketari, zepei, errematxaketari eta zizelketari buruzko oinarriko ezagutzak dauzka; argitapen-instalazioak egiten ditu, bergman tutua, plastikoak eta altzairua erabilita, baita indar-instalazioak ere. Halaber, konponketa txikiak egiten ditu aipatutako instalazioetako gailuetan eta tresnatzat hartzen diren aparatu eramangarrietan.

Automatista-instrumentugilea. Elementu edo pieza mekanikoen, zirkuitu elektrikoak eta zirkuitu elektronikoen planoak edo krokisak irakurri eta interpretatzen ditu, baita muntatu edo konpondu behar diren instrumentuen multzo partzial edo guztizkoak ere. Funtzionamendu mekaniko edo elektrikoak doitzen du, akatsak aurkitu eta konponduz; neurri elektrikoak, elektronikoen, galvonometroak, elektrodinamikoen eta optimoen tresna mota ororen mantentze-lan programatuak egiten ditu, eta, horretarako, beharrezko gailuak eta tresnak erabiltzen ditu.

Tenperaturen, presioen, emarien, gas-maila analizatzaileen, berotze-ahalmenaren, hutsaren, biskositatearen, errekuntzaren, azidoen edo fluidoak alkanotasunaren neurketa-, erregulazio- eta kontrol-instalazioak, sinpleak nahiz automatikoak, muntatu, doitu eta prestatzen ditu; halaber, tresna mekaniko elektrikoak, elektronikoa eta elektrodinamikoa muntatu, kalibratu, konpondu eta prestatzen ditu, transmisio-zirkuituekin, tresna egokiak eta «patroïak» erabiliz (hala nola, zirkuituen eta lanpara elektronikoen analizatzaileak).

Tutuen loturen hermetikotasuna egiaztatzen du, presiopeko airea injektatuz, eskuz eragindako bomba baten bidez (bonbak manometroa dauka). Erregulazioen automatizazioa kontrolatzen du, eta, horretarako, alderaketak egiten ditu, aldizka, instalazioko gailuen grafikoak eta oharren eta egiaztapen-gailuen artean, akatsak zuzentzeko.

Tentsio baxuko zerbitzuetan, martxan jarritako seinaleztapen elektrikoko ekipoak doitu eta konpontzen ditu, tresna egokiak erabiliz.

Tresna erregistratzaile guztien grafikoak jarri eta kentzen ditu, jada inprimatutakoen ordez berriak jartzeko. Zintak, tapoiak, tinta-kargak eta abar aldatzen ditu, eta gailu mota guztiak koipeztatzen, akzidente berezien bidez. Zerbitzua behar bezala egin dadin konpontzen diren tresna guztien laneko jakinarazpenak eta berrikuste- edo egiaztatze-fitxak betetzen ditu, eskuz.

Bobinatzailea. Langile honek honako operazio eta lan guzti hauek egiteko gaitasuna dauka: plano eta eskema elektrikoak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, bobinak muntatzea, serieak, irteerak eta zubiak uztartzea, uztartetak eztainguztatzea (berrikusteko eta zintaztatzeko prest utzita), kuñak, osagarriak eta ziriak jartzea, bobinak lotzea eta kableak jartzea. Horretarako, normalean, honako tresneria hau erabiltzen du: plastikozko forrua, pintzak, artaziak, lima, aliketak, soldagailu elektrikoak, gas-berogailua, eztainguztatzea, eskuzorroak, soldatzeko orea, mailua, kalibrea, metroa eta abar.

Txapista. Langile hau honako operazio eta lan hauek egiteko gai da: ibilgailuen karrozeria-rekin lotutako piezen edo elementuen planoak eta krokisak irakurri eta interpretatzea eta, haien arabera, txapa finezko piezak edo egiturak eraikitzea; besteak beste, trazaketa-, txantilo- eta okerketa-lanak eginez. Karrozeriak osatzen dituzten zatiak desmuntatu eta muntatzen ditu, eta akats guztiak konpontzen. Halaber, eraikitzen dituen txapazko piezak doitzen ditu, eta elkarrekin lotzen. Bere lana betetzeko, hainbat tresna erabiltzen ditu; hala nola, bihurkinak, aliketak, limak, zerra-arkua, mailua, errasketak eta abar. Bestetik, ekipo oxiazetilenikoa erabiltzen du, eta makina tolestailak, eskuzko zizailak eta "tas" mahaiak erabiltzen ditu, txapa zuzendu eta lantzeko. Halaber, txapa moldekatzeko makina unibertsala erabiltzen du, eta, oro har, baita operazio mota horietan beharrezkoak diren lan-tresna guztiak ere.

Ofizialen definizioetan esleitutako zeregin guztiak hartu beharko dira kontuan, bakoitza berariaz esleitzen ez bada, eta errendimendu egokiak ziurtatzeko denboretan egin beharko dira lanak.

Lanen premiak direla-eta lanbide berriak ezarri beharko balira industria siderometalurgikoan, lanbideok zerranda honetara sartuko dira, egokitzen den definizioarekin.

Enpresek langile profesionalen edo ofizioko langileen ehuneko hauek eduki beharko dituzte gutxienez, lanbide bakoitzeko:

Lehen mailako ofizialak ehuneko 25.

Lehen mailako ofizialak eta bigarren mailakoak, multzoan, ehuneko 25, eta gainerakoak hirugarren mailako ofizialak izango dira, mendekoak

Industria siderometalurgikoan, mendekotzat jotzen dira 18 urtetik gora dituzten eta langileei, administrariei edo teknikariei agindutako zereginetan tarteko lanak egiten dituzten langileak, baldin eta Lehen Hezkuntzan eskuratutako kultura nahikoa bada eta karguari berez dagokion erantzukizuna besterik ez badute.

Hona hemen mendeko bakoitzaren definizio zehatzak:

Zerranda-arduraduna. Mendeko honek langileak lanera sartzeko eta lanetik irteteko orduak jasotzen ditu, eta haien asistentzia-faltak, eskuzko lanak, aparteko orduak eta hartutako postuak erregistratzen ditu, baita sortutako orduak laburbiltzen ere, baldin eta sarien edo destajuen koefizienteak tartean sartzen ez badira; kobrantza-paperak banatzen ditu, eta baja- eta alta-agiriak ematen, medikuaren aginduen arabera, eta lan egiten duen tailerreko, saileko, zerbitzuko edo ataleko langileen ordutegi eta jaiegun berberak izango ditu.

Enpresako lan-antolaketa dela-eta zerranda-arduradunek sariak edo destajuak likidatzeko lanak egiten badituzte eta zenbatekoa pezetatan laburbiltzen badute edo antzeko lanak edo beren egitekoetan zerrendatutako beste batzuk egiten badituzte, bigarren mailako administrazio-ofizialtzat hartuko dira; halere, gainerako baldintzei dagokienez, zerranda-arduradun gisa sailkatzeko ezarritako baldintzen mende egongo dira, zerbitzu horretan aritu bitartean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, 5 urtez baino gehiagoz zerbitzu eman duten zerrenda-arduradunak bigarren mailako administrazio-ofizialekin berdinduko dira ondorio ekonomikoetarako, baina, gainerako lan-baldintzei dagokienez, zerrenda-arduradunen kategoriarako finkatutakoen mende egongo dira, administrazio-taldera igaro gabe.

Biltegiaina. Mendeko hau enpresaren biltegi orokorraz edo biltegi orokor guzti-guztiek arduratzen da, eta biltegi orokortzat jotzen dira fabrika osoari zerbitzu ematen diotenak. Bada, eskaerak egiten ditu, eta salgaiak jaso eta biltegi-tako geletan banatzen; halaber, liburuetan erregistratzen du lanaldian izandako material-mugimendua, eta zerrendak idatzen ditu, eta bulegoetara bidaltzen, materialen helmuga eta jatorria adierazita.

Biltegia handia izategatik hainbat langilek egiten badituzte lanok, langile guztiak sailkatuko dira biltegiain gisa.

Adierazitako eginkizunaz gainera material bakoitzaren prezioa kalkulatu badu, aplikagarriak zaizkion gastuen arabera, bigarren mailako administrazio-ofizialaren kategoriarekin berdinduko da ondorio ekonomikoetarako; gainerako lan-baldintzetan, ordea, biltegiainaren berezko kategorian ezarritakoen mende egongo da.

Motozikleten gidaria. Dagokion gidabaimena izanik, salgaiak garraiatzeko kutxa duten motozikletak gidatzen ditu.

Automobilen gidaria. Dagokion gidabaimena eta automobilen ezagutza mekanikoak izanik, enpresaren automobilak gidatzen ditu.

Kamioien eta garabi automobilen gidaria. Dagokion gidabaimena eta beharrezko ezagutza mekanikoak izanik, enpresaren kamioiak eta garabi automobilak gidatzen ditu.

Makina automobilen gidaria. Mendeko honek, C motako gidabaimena edo altuagoa izanik eta enpresaren ustez tailer batera eraman behar ez diren matxura elektrikoak edo makinak konpontzeko ezagutza nahikoak edukita, honako makina hauek gidatzen ditu lantoki barruan: traktoreak, hondeamakinak, karga-palak, urkila-gurditxoak eta antzekoak.

Pisatzailea edo baskularia. Mendeko honek pisatu egiten du, pisuak liburuan erregistratzen ditu, eta egunean egindako operazioak idatziz jasotzen ditu.

Ekoizle honek, adierazitakoez gainera, goragoko kategoria bateko eginkizunak betetzen baditu, azken kategoria horretan sailkatuko da, eta, lanotan kostuak edo ekoizpenak edo bestelako operazioak lortzeko parteak egiten baditu, bigarren mailako administrazio-ofizialtzat hartuko da.

Zinpeko zaintzailea edo industriako eta merkataritzako jagolea. Mendeko honek zaintza-eginkizunak betetzen ditu, izendapen hori dutenen kargua arautzen duten legeek adierazitako xedapenen arabera.

Langile honek beste zaintzaile edo jagole batzuen gaineko agintea badu, esleitutako soldataren ehuneko 10 gaineratuko zaio soldatari.

Jagolea. Mendeko honek zinpeko zaintzailearen betebeharrak ditu, baina ez du horretarako titulurik, ezta zaintzaileari edo jagoleari ematen zaion eskuduntzarik ere.

Zaintzen kaboia edo industriako eta merkataritzako zinpeko jagolea. Mendeko honek zinpeko zaintzaileen kategorian du jatorria, eta, gutxienez, zazpi zaintzaile edo jagole ditu ardurapean; agintzeko eta antolatzeko eginkizunak dauzka.

Mandataria. Mendeko honek mandatuak egiten ditu, eta prentsarako dokumentuak kopiatzen. Era berean, sailek agintzen dizkieten enkarguak egiten ditu, korrespondentzia jaso eta banatzen du, eta buruek agindutako oinarritzako lanak egiten.

Langile honek, enpresak aginduta, kobrantza- eta ordainketa-lanak egiten baditu enpresatik kanpo, esleitutako soldataren ehuneko 10 gaineratuko zaio soldatari.

Kategoria honetatik kanpo geratuko dira enpresa-esparru barruan mezulari-lanak bakarrik egiten dituztenak.

Atezaina. Mendeko honek, goragokoen aginduei jarraikiz, fabriketarako edo lokaletarako sarrerak zaintzen ditu, zaintza- eta jagote-eginkizunak betez.

Mandatugilea. 14 eta 18 urte bitarteko mendeko honek banaketa-lanak egiten ditu atxikita daukan lokalaren kanpoan eta barruan.

18 urte betetzean administrari-klasera igaro ez den mandatugilea automatikoki sartuko da mandatarien kategorian, lanpostu hutsik egonez gero; lanpostu hutsik egon ezean, hala nahi badu, mandatugileen kategorian geratuko da, baina soldata igota: mandatugile gisa jasotzen zuen soldataren eta mandatarari gisa egokituko litzaiokeen soldataren arteko aldearen ehuneko 75 gehiago.

Etkezaina. Mendeko honek mandatarien edo atezainen kategorietan du jatorria, eta, gutxienez, bost mandatarari edo atezainari ditu ardurapean; agintzeko eta antolatzeko eginkizunak dauka.

Erizaina. Mendeko honek, Medikuntzako titulurik izan gabe baina osasun-establezimenduetako zerbitzuek eskatzen dituzten ezagutza soilak edukita, nahitaez erizain izendatzea eskatzen duten eginkizunak betetzen ditu.

Ekonomatoko langileak.

Dendari nagusia. Mendeko hau, dendari laguntzaileari egotzitako zereginak betetzeaz gain, ekonomatoko atal bateko burua da, eta dendari laguntzaile bat du ardurapean; bestela, aginterik izan gabe, atal edo azpiatal espezializatu baten zuzeneko ardura dauka. Ardura hori betetzeko, nolabaiteko eskarmentua behar da, eta, enpresaren ustez, dendari nagusiak baino ezagutza gehiago eduki behar dira.

Dendari laguntzailea. Mendeko honek ekonomatoko salgaiak jaso, antolatu eta banatzen ditu, bai dendari nagusiaren aginduetara, bai, edukia dela-eta, enpresaren ustez eskarmentu handirik edo ezagutza berezirik eskatzen ez duen atal edo azpiatal batean.

Izangaia. Mendeko hau, 14 eta 18 urte bitartean, dendari-lanetan hasten da, eta, 18 urte betetzen dituenean, dendari laguntzailearen kategoriara igotzen da automatikoki, lanpostu hutsik egonez gero; bestela, hala nahi badu, izangaien kategorian geratuko da, soldata igota: izangaia gisa jasotzen zuen soldataren eta dendari nagusi gisa egokituko litzaiokeen soldataren arteko aldearen ehuneko 15 gehiago.

Sukaldeko eta jantokiko langileak.

Honako lanbide-kategoria hauek osatzen dute:

Sukaldari nagusia. Ekonomikoki, ekonomatoko dendari nagusiarekin berdinduta dago.

Sukaldari laguntzailea. Ekonomikoki, ekonomatoko dendariarekin berdinduta dago.

Sukalde-laguntzailea. Ekonomikoki, sukalde-laguntzailearekin berdinduta dago.

Zerbitzari nagusia edo maiordomoa. Ekonomikoki, ekonomatoko dendari nagusiarekin berdinduta dago.

Zerbitzaria. Ekonomikoki, sukalde-laguntzailearekin berdinduta dago.

Zerbitzari laguntzailea. Ekonomikoki, sukalde-laguntzailearekin berdinduta dago. Aurreko kategoria horiek egongo dira, baldin eta langileak horretan bakarrik aritzen badira eta ez denbora mugatu batez, lanaldiaren barruan edo kanpoan, beren lanbide-kategoriaren berezko zereginekin txandaka.

Telefonista. Mendeko honen lan bakarra telefonogunea zaintzea da.

Enpresa txikietan edo tailerretan, lan-antolaketa dela-eta, edozein mendekok bere eginkizun espezifikoarekin lanaldi osoa betetzen ez badu, antzeko eginkizunak agindu ahalko zaizkio mendeko horri, lanaldi osoa bete dezan; ordainsariaren ondorioetarako, kategoria handienean sailkatuko da.

Administrariak.

Enpresa siderometalurgikoetan, administrazioko edo bulegoko kontzeptu orokorrean sartuko dira, prozesu administratiboak, teknikoak edo kontabilitatekoak ezagututa, bulego orokorretan edo fabriketakoetan batez ere bulego-lanak egin ohi dituzten langileak. Bestek beste, honako lan hauek betetzen dituzte: enpresaren martxari eta egoerari buruzko kontabilitate-datu estatistikoak lortzea, txostenak ematea, gutunak bidaltzea, eskuz edo modu mekanikoan transkribatzea, negozioak behar bezala funtzionatzeko behar diren dokumentu guztiak ikuskatu edo prestatzea eta, oro har, merkataritzako ohiturengatik bulegoko langileen berezko lantzat jotzen diren guztiak egitea. Halaber, talde honen barruan sartzen dira administrazio-prozesuak mekanizatzeke eta datuak prozesatzeko lanetan aritzen diren langile guztiak.

Aurreko epigrafean zerrendatutako administrariak honela definitzen dira:

Lehen mailako burua. Atal bat edo batzuk antolatu, ikuskatu, berrikusi edo zuzentzen du/ditu; atalei batasuna ematen die; lana banatu eta zuzentzen du, behar bezala aginduta, eta atalak ondo joateko ekimenak eskaintzen ditu.

Bigarren mailako burua. Administrari honek lehen mailako buruaren aginduetara jarduten du, halakorik egonez gero, eta bere ardurapeko atala edo bulegoa orientatu, iradoki eta batzeaz arduratzen da, baita lana ofizialen, laguntzaileen eta, egonez gero, bere mendeko gainerako langileen artean banatzeaz ere; aldi berean, karguari berez dagokion ardura dauka.

Kutzazaina. Fabriketan kobrantzak eta ordainketak egiteaz arduratzen da, enpresa bakoitzak ezarrita dituen araei jarraikiz, eta honako lan hauek egiten ditu: ondasunak zaintzea eta aurrekontuak eta kutxarekin zerikusia duten dokumentu guztiak (kutxa-liburua eta abar) egitea. Kontabilitateari buruzko ezagutza zabalak dauzka, eta bere lanean sortzen diren anomalia guztien arduraduna da.

1.000 langiletik gorako enpresetan, lehen mailako buruaren kategoria izango du; 250 eta 1.000 langile arteko enpresetan, berriz, bigarren mailako buruarena, eta, langile gutxiagoko enpresetan, lehen mailako ofizialarena. Konfiantzazko kargua denez, enpresak nahieran izendatuko du.

Lehen mailako ofiziala. Administrari honek 20 urte baino gehiago dauzka, eta zerbitzu jakin bat dauka ardurapean, ekimen eta erantzukizun mugatuarekin, bere aginduetara langileak di-tuela edo gabe. Bada, honako lan hauetako batzuk egiten ditu: kobrantza- eta ordainketa-lanak, kutxazain edo buru baten mende eta hari laguntzen, sinadurarik, fidantzarik, fakturarik eta kalkulurik gabe, betiere eginkizun horren arduraduna bada; kalkuluak, betiere eginkizun horren arduraduna bada; estatistika-kalkuluak egin eta kontu-liburu arruntak transkribatzea; egunkari nagusia eta korrespontsalak, korrespondentzia norberaren ekimenez idaztea, ordainsarien, soldaten edo antzeko eragiketen nominen likidazioak eta kalkuluak egitea eta lehen edo bigarren mailako buruaren aginduetara jardutea, halakorik balego; diktaketan minutuko 100 hitz hartzen dituzten eta zortzi minutuan ondo eta makinan zuzenean itzultzen dituzten sexu bateko eta besteko takimekanografoak; makina ordenatzaileak erabiliz eta, lan-programaren datuetatik abiatuta, elementuak behar bezala antolatuz, lanok egitea, sortzen diren arazo guztiak ebaztearekin batera.

Bigarren mailako ofiziala. Administrari honek 20 urte baino gehiago dauzka, eta, ekimen mugatuarekin eta lehen mailako buruaren eta ofizialen mende, halakorik egonez gero, kontabilitateko eragiketa laguntzaileak egiten ditu, eragiketok liburuetan transkribatzen ditu, artxiboak edo fitxategiak antolatzen ditu, eta korrespondentzia-lanak eta gainerako lan laguntzaileak egiten ditu; diktaketan minutuko 40 eta 100 hitz artean hartzen dituzten eta zortzi minutuan ondo eta makinan zuzenean itzultzen dituzten sexu bateko eta besteko takimekanografoak, eta diktaketa, gutxienez, hiru minutukoa izango da; fitxak fakturatu, sailkatu, tartekatu eta erreproduzitzeko makinetan eta kalkulu elektronikoak egiteko makinetan eskatzen diren eragiketa guztiak egitea.

Laguntzailea. Administrari honek, 18 urte baino gehiago edukita, ez dauka ekimen propiorik, eta, bulegoetan, oinarrizko administrazio-eragiketak egiten ditu, eta, oro har, baita eragiketa horien berezko eragiketa mekanikoak ere. Sexu bateko zein besteko mekanografoak dira, baldin eta, txukuntasunez eta zuzentasunez, mekanografia-funtzioak betetzen badituzte, diktaketan minutuko 275 pultsazio eginez, batez beste.

Kategoria honetan sartuko dira bigarren mailako ofizialei eskatzen zaizkien abiadura eta zuzentasuna lortzen ez dituzten takimekanografoak; fakturei, fitxa zirkulatuzaileei eta biltegietako fitxeri, eskaera-oharrei eta abarrei dagozkien datuak zulatu eta egiaztatzea, makina eta fitxen oinarri-dokumentuetan zehazten diren datuak ondo erabilia.

Takimekanografoaren eta mekanografoaren eginkizunean, ez dago gutxieneko adin-mugarik.

“Tailerreko idazleak” deiturikoek, baldin badaude, administrari laguntzaileen ordainsaria eta kategoria izango dituzte, ondorio guztiekin, laneko ordutegia izan ezik, atxikita duten tailerrekoa izango baita ordutegia.

Zerbitzuan 5 urte baino gehiago daramatzaten administrari laguntzaileek bigarren mailako ofizialen soldata izango dute, mailaz igotzea egokitzen ez bazaie.

Izangaia. Administrari izangaitzat joko dira 14 eta 18 urte artean dauzkaten, bulegoko lanetan aritzen diren eta bulegoko betekizunetan hasi nahi duten langileak.

Saltzaile bidaiaria. Enpresa bakar baten zerbitzura egonik, langile hauek alde aurretik zehaztutako ibilbidea egiten dute salgaiak eskaintzeko, eskariak jasotzeko, bezeroei informazioa emateko, jasotako enkarguak helarazteko eta enkarguak betetzen direla ziurtatzeko; enpresak beste eginkizun egoki batzuk agindu ahalko dizkio, bidaietatik kanpo.

Lehen mailako administrari ofizialaren hileko ordainsariak jasotzen ditu.

Teknikariak.

Teknikariak, Espainiako Estatuak ofizialki mantentzen duen irakaskuntza-zentro batek emandako titulu profesionala edukita edo eduki gabe, espezialitate teknikoko eginkizunak betetzen ditu, enpresak kontratatu duen espezialitate teknikoaren arabera.

Titulurik gabeko teknikariak:

Titulu profesionalik eduki gabe enpresak zertarako kontratatu duen, horren arabera eginkizunak betetzen ditu.

Tailerreko teknikariak.

Azpitalde honetan dauden teknikariak honela definitzen dira:

Tailerreko burua. Teknikari honek agente zuzena dauka maisuen eta kontramaisuen gainean, eta, ingeniari edo laguntzaile buruaren esanetara egonik, halakorik balego, langileen lanaren, diziplinaren eta segurtasunaren gaineko erantzukizuna dauka. Honako lan hauek dagozkie: tailerra edo tailerrek antolatzea edo zuzentzea, erreminten krokisak egitea, energia, erregaiak, lubrifikatzaileak eta lantegiko gainerako hornidurak kontrolatzea; sail barruko obrak eta langileak sailkatzea eta banatzea; egin beharreko lanen aurrekontuak idaztea eta beharrezko tresneria zehaztea; fabrikazioa hobetzeko eta instalazioak handitzeko beharrezkoak diren makinak eta elementuen ekoizpena eta errendimendua aztertzea.

Tailerreko maisua. Teknikari honek ofizioko lanbide-kategoria batean du jatorria, eta, ingeniari laguntzailearen edo tailerreko buruaren esanetara, halakorik egonez gero, zuzeneko agente dauka bigarren mailako maisuen eta beheagoko teknikarien gainean, halakorik egonez gero; tailerreko edo ataleko lanak zuzentzen ditu, lanak agintzeko moduen gaineko erantzukizunarekin, eta lanak nola egin esan behar dio langileari, baita zenbat denbora eta zer tresna erabili ere; hortaz, goikoek emandako aginduak betetzeko ezagutza nahikoak izan behar ditu, zeinak, gainera, bere eginkizunari baitatxekio; halaber, krokisen eta planoen interpretazioa

trazatzeko moduko ezagutzak eduki behar ditu, eta bere ardurapeko tailerreko edo ataleko diziplinaren arduraduna da. Kategoria honen berezko eginkizuna da eskulanaren kostuari buruzko datuak ematea, aurrekontuak aurreratzea eta materialak zehaztea, planoen eta jarraibideen arabera.

Ordainsariaren ondorioetarako, eginkizunetan aritzen diren lanaldiaren zatiagatik, lanbide-kategoria honetan sartuko dira irakaskuntza tekniko eta praktikoetako irakasleak, multzoan, baldin eta irakaskuntza-eskoletan aritzen badira eta tituludunak ez badira; titulua edukiz gero, egokitzen diren kategorietan sailkatuko dira.

Bigarren maisua. Teknikari honek, tailerreko buruaren edo lehenengo maisuaren aginduetara, halakorik balego, konponketetako tailer txikiko, ataleko edo saileko lanak zuzentzen ditu, eta lanok agintzeko moduaren arduraduna da; hala, lanak nola egin eta zenbat denbora eta zer tresna erabili adierazi behar die langileei. Hortaz, goikoek emandako aginduak betetzeko ezagutza nahikoak izan behar ditu, zeinak, gainera, bere eginkizunari baitatxekio; halaber, krokisen eta planoen interpretazioa trazatzeko moduko ezagutzak eduki behar ditu, eta bere ardurapeko tailerreko edo ataleko diziplinaren arduraduna da.

Kontramaisua. Teknikari honek, arduradunen gaineko agintearekin eta ingeniari laguntzailearen edo tailerreko buruaren aginduetara, halakorik balego, espezialitate batean eskuratutako ezagutzak dauzka eta, hala badagokio, aplikatu egiten ditu; halaber, langileen diziplinaren, lan-banaketaren, lan onaren, piezak ordezkatzearen eta instalazioen kontserbazioaren arduraduna da, eta ekoizpenei eta errendimenduei buruzko datuak ematen ditu.

Arduraduna. -Teknikari honek, maisu kontramaisuaren agindu zuzenetara, halakorik balego, atal baten lanak zuzentzen ditu, eta, beraz, lanak agintzeko moduaren gaineko erantzukizuna dauka. Hortaz, langileei lanak nola egin adierazten die, eta goikoen aginduak bete ahal izateko espezialitate batez edo batzuek badaki; halaber, bere taldearen diziplinaz arduratzen da praktika osoan.

Langilezain espezialista. Arduradun baten esanetara, halakorik balego, ezagutza teknikorik eta planoen interpretaziorik eskatzen ez duten lanetan peoien eta espezialisten talde bat zuzendu ahal izateko baldintza praktikoak biltzen ditu, nahiz eta lanok ahalegin fisikoa baino zerbait gehiago eskatu; hala nola, gurdiak kargatu eta deskargatzea, maniobrak egin eta materialak banatzea, langileak banatzea (errendimendurik onena lortzeko), zaintzea eta antzeko lanak.

Peoi arrunten langilezaina. Peoien kategoriak egindako lanak zuzentzen eta zaintzen ditu, eta haien gaineko agintea dauka.

Bulegoko teknikariak.

Azpitalde honetan dauden teknikariak honela definitzen dira:

Delineatzaile proiektugilea. Teknikari honek ez du titulu profesionalik behar lan egiteko, eta, bere atalean jorratzen dituen espezialitate teknikoen barruan, gorago duen ingeniariak adierazitakoa proiektatzen edo xehatzen du; bestela, berehalako goikorik ez badu, datuen arabera eta bezeroek, enpresek edo lanen izaerak eskatutako baldintza teknikoen arabera, berak balioetsitakoa egiten du. Muntaketak zuzentzeko, aztergai diren obren kokapenen plano topografikoak egiteko, zenbatzeko eta zuinkatzeko gai izan behar du. Eginkizun horien barruan, honako hauek dira nagusiak: proiektu mota guztiak aztertzea, eraiki beharreko obra garatzea eta aurrekontuak egiteko balio dezaketen datuak prestatzea.

Proiektu-marrazkilaria. Teknikari honek, aurrez ezarritako arrazoï baten mende eta bere ekimenez, dekorazio- eta altzari-proiektuak proiektatu, egin eta garatzen ditu; praktikan, proiektuak nola gauzatu agindu, zaindu eta zuzentzen du, eta bere lanari dagokion guztiaren gaineko ardura dauka.

Lehen mailako delineatzailea. Teknikari honek, bigarren mailako delineatzaileari eskatzen zaizkion ezagutzak edukitzeaz gainera, honako hauek egiteko gai izan behar du: proiektu errazak guztiz garatzeko, plano orokorrak eta xeheak egiteko (lursail naturaletik nahiz aztertutako aurreproiektuen eskematik abiatuta), makineria orokorraren krokisak egiteko, plano orokorra zatitzeko, egin beharreko kontsultetarako eta obretarako materialak eskatzeko, munta handieneko planoak, kokalekuak eta garraioak interpretatzeko eta piezen eta metalezko mekanismoen edo egituren erresistentzia kalkulatzeko, lan-baldintzak eta ahaleginak ezagutu ondoren.

Topografiako praktikoa. Teknikari honek, gailu topografiko mota guztiak maneiatzen jakinda, planoak egiteko, obrak zuinkatzeko eta agintzen zaizkion antzeko lanak egiteko behar diren landa- eta kabinete-lanak egiten ditu, eta bere ardura da lanok ondo egitea.

Argazkilaria. Teknikari honek, modu iraunkorrean eta lana egiteko moduari dagokionez ekimen eta erantzukizun propioak edukita, agintzen dizkioten ekintza edo lan guztien argazki-informazioa egiten du: plakak edo filmak inprimatzea, errebelatzea, positibatzea, argazkiak handitzea, negatiboak eta kopiak moldatu eta zuzentzea eta, oro har, argazkilaria profesional baten berezko lan guztiak egitea, planoak edo argazkiak erreproduzitzeko lanak egin nahiz ez egin.

Bigarren mailako delineatzailea. Teknikari honek, kalkatze-lanak egiteaz gainera, plan orokorrak edo xeheak egiten ditu, zehatzak eta ondo kotatuak, krokisa jaso ondoren; materialen pisua kubikatu eta kalkulatu du, dimentsioak zehaztuta dituzten piezetan; berak marraztu edo kalkatu dituen pieza isolatuen krokisak egiten ditu, era naturalean, eta materialen erresistentziari, materialen erresistentzia horien xehetasunen proiektioei eta mugarrizuei eta munta gutxiagoko xehetasunen proiektioei eta mugarrizuei buruzko oinarrizko ezagutzak dauzka.

Kalkatzailea. Oihalezko paper garden edo landare-paper garden batean kopiatzen ditu beste batzuek prestatutako marrazkiak, kalkatuak edo litografiak, eta eskalan marrazten ditu krokis soilak, argi eta ondo interpretatuta, bai estanpako marrazkiak kopiatuz, bai garbian marraztuz.

Argazkien erreproduzitzailea. Prozedura fotografikoen, makina eta instalazio industrialen eta argazki-kopien bidez, argazkiak erreproduzitzen eta errebelatzen ditu, eta, beharrezkoa bada, handitu edo txikitu egiten ditu.

Planoen erreproduzitzailea eta artxibozaina. Teknikari honek planoak prentsan artxibatzen ditu, edo, makinetan, planoak erreproduzitzen, ferropusiar erara, sepian eta antzekoetan.

Liburutegiko artxibozaina. Artxiboen, kontsultarako obren, liburutegi teknikoaren, katalogoen, aldizkarien eta abarren arduraduna da.

Lan horien mekanika besterik egiten ez badu, laguntzailatzat hartuko da.

Laguntzailea. 18 urte baino gehiago dauzka, eta, ekimen propiorik gabe, oinarrizko operazioak eta operazio osagarriak egiten ditu; oro har, operazio horien berezko lan mekanikoak egiten ditu.

Zerbitzuan 5 urte baino gehiago daramatzaten kalkatzaileek, argazki-erreproduzitzaileek eta laguntzaileek bigarren mailako delineatzaileen soldata izango dute, mailaz igotzea egokitzen ez bazaie.

Izangaia. 14 eta 18 urte artean dauzka, eta artikulua honetan zehaztutako edozein kategoriaren berezko lanetan aritzen da, lanotan hasi eta prestatzeko helburuz.

Antolaketako teknikariak.

Azpitalde honetan dauden teknikariak honela definitzen dira:

Lehen mailako burua. Teknikari honek, antolaketako ofizialen eta teknikarien eta bigarren mailako buruen gaineko agintea edukita, langileen lanaren diziplinaren eta segurtasunaren ardura dauka, entitatearen antolaketarekin bat, enpresaren barne-araudiak finkatzen duen agintemaitarekin. Aurrez ezarritako arazoien mende jarduten du, eta, hor barruan, bere ekimenez,

metodoak, programazioak, planteamenduak, ikuskapenak eta kontrolak hobetzeko azterlanak egiten ditu, baita denborak aztertu ere; bestalde, kalifikazio-teknikak programatu, aztertu eta garatzen ditu, eta langileen lanak, segurtasuna, hautaketa eta prestakuntza baloratzen. Plano mota guztiak interpretatzen ditu, baita fitxa osoak interpretatu eta banatzen ere, eta planoetatik nahiz obretatik datozen datuetan oinarritutako lanetarako behar diren materialak ebaluatzen ditu. Buru-jarduerak egin ahalko ditu, makinak, instalazioak eta eskulana erabiltzeko, bilakaera neurtzeko, produktuak ateratzeko eta kostuak edo emaitza ekonomikoak neurtzeko eremuan.

Bigarren mailako burua. Lehen mailakoaren eginkizun berberak izango ditu, baina, ardurapean duen ataleko lanaren konplexutasuna dela-eta, enpresak bereizi egiten du.

Lehen mailako antolaketa-teknikaria. Teknikari honek, lehen mailako edo bigarren mailako buruen esanetara, halakorik balego, honako lan hauek egiten ditu, lanaren antolaketa zientifikoko eginkizunetan: mota guztietako denborak kronometratu eta aztertzea, edozein langilekopurutako taldeetan metodoen hobekuntzak aztertzea eta zenbatespen ekonomikoak egitea; zailtasun ertaineko arauak edo lan-tarifak egitea; fitxa osoak egitea; lan-sortak edo -multzoak definitzea, programatzeko xedez; lan horien lan-denborak kalkulatzeko; kasu guztietan karga-taulak ezartzea; planoetan edo obran lortutako datuetatik abiatuta material-premia osoak ezartzea, hautemateko zailtasunak izan arren, eta mota guztietako zatiketak eta krokisak egitea; muntaketa-ordena ezartzen laguntzea, pieza-sortetarako edo produkzioaren planteamendu orokorreko funtzio-eremuetarako; zailtasun ertaineko planteamendu-arazoak ebaztea eta irudikapen grafikoak egiten laguntzea; mota guztietako zereginak eta lanpostuak aztertu, deskribatu eta zehaztea; lanpostuak eta merezimendu pertsonalak aztertu eta sailkatzea; soldata-organigramak eta-eskalak egitea; langileak aukeratu eta prestatzea.

Bigarren mailako antolaketa-teknikaria. Teknikari honek, antolaketan laguntzeaz gainera, honako lan hauek egiten ditu: beste mota bateko kronometrajeak egitea; arauak egiteko datuak aukeratzen parte hartzea; erdi-mailako zailtasuna duten lan-metodoak eta hiru aldagai arteko talde-saturazioa aztertzea; erdi-mailako zailtasuna duten fitxa osoak egitea; balioespen ekonomikoak egitea; datu-bilketan balioespenak egiteko zailtasunak dauzkaten obren berri ematea; lan-multzoak definitzea, nagusien ohar zehatzekin; denborak datuekin kalkulatzeko; planoetan eta obran bertan zailtasun ertaineko trazaketak egitea, zailtasun ertaineko zatiketak egitea eta horien ondoriozko krokisak egitea; materialaren premiak aztertzea, zailtasun arrunten kasuetan; planteamenduari eta errepresentazio grafikoei dagozkien eginkizunetan parte hartzea; zeregin eta lanpostu mota guztiak aztertu, deskribatu eta zehaztea; lanpostuen eta norberaren merezimenduen sailkapena aztertzea; organigramak eta soldata-aulak egitea; laneko segurtasuna zaintzea; langileak aukeratu eta prestatzea.

Antolaketako laguntzailea. Langile honek 18 urte baino gehiago dauzka, eta lanaren antolaketa zientifikoko lan errazak egiten ditu; hala nola, honako hauek: kronometraje errazak egitea, ondo zehaztutako jarraibideekin datuak pilatzea, lanorduak berrikusi, antolatu eta ordaintzea; artxiboko lan errazak egin eta planoak eta dokumentuak zenbakitzea; dauden materialei buruzko fitxak eta eskaeren mugimenduen fitxak egitea (batez ere, informazioa transkribatzea); denborak kalkulatzeko, datuetatik eta ondo zehaztutako arau edo tarifetatik abiatuta; irudikapen grafikoak egitea.

Zerbitzuan 5 urte baino gehiago daramatzaten laguntzaileek bigarren mailako antolaketa-teknikarien soldata izango dute, mailaz igotzea egokitzen ez bazaie.

Izangaiak. 18 urtetik behera dauzka, eta lan errazak egiten ditu; antolaketako laguntzailearen mailara igotzeko gaikuntza eta prestakuntza dauzka.

Laborategiko teknikariak.

Azpitalde honetan dauden teknikariak honela definitzen dira:

Lehen mailako burua. Dagokion titulu espainiarra edukita, industria siderometalurgikoko laborategi espezifiko baten berezko lanak zuzendu, antolatu eta banatzen ditu, kimikari, metalografiari eta entsegu kimikoei dagokienez. Lanok bere ardurapean daude, eta bere aginduetara dituen langileen diziplina zaintzen du.

Bigarren mailako burua. Titulu profesionala izanik edo eduki gabe eta mota honetako laborategi bateko lan guztiak egiteko gai izanik, antolaketa hobetze aldera sor daitekeen lantalde jakin bat zuzendu eta banatzen du; bere ataleko lanen erantzule nagusia izango da, eta lehen mailako buruaren esanetara egongo da, halakorik balego.

Analistak. Teknikari hauek, atal bakoitzaren barruan, lan arruntenak gauzatzen dituzte, bigarren mailako buruaren esanetara edo, bestela, lehen mailako burua egonez gero, ingeniari laguntzaileen esanetara.

Klase hau bi kategoriatan zatitzen da: lehen mailako analista eta bigarren mailako analista. Kategoriatan batetik bestera igarotzeko, zerbitzuan emandako urteak eta gaikuntza hartuko dira kontuan.

Laguntzailea. 18 urte baino gehiago dauzka, eta, ekimen propiorik gabe, laborategiaren barruan, analisten oinarritzko lanak eta lan osagarriak egiten ditu, haien kategoriarara igotzeko ikaskuntza eta prestakuntza gisara.

Zerbitzuan 5 urte baino gehiago daramatzaten laguntzaileek bigarren mailako analisten soldata izango dute, mailaz igotzea egokitzen ez bazaie.

Izangaia. 18 urtetik behera dauzka, eta lan errazak egiten ditu; laborategiko laguntzailearen mailara igotzeko gaikuntza eta prestakuntza dauzka.

Dike eta kaletako teknikariak.

Azpitalde honetan daudenak honela definitzen dira:

Dike eta ontzitegiako buruak. Teknikari hauek dike-zerbitzuak erabiltzen dituzten ontzien irteera-eta sarrera-maniobren gaineko ardura dute, baita ontziak lehortzen jartzekoa ere, eta, ontzitegiak erabiltzen dituzten ontzien kasuan, ontziak lehortzen jartzeko eta uretaratzeko ardura dute.

Nasetako buruak edo arduradun nagusiak. Ingeniari buruen administrari laguntzaileen esanetara, halakorik balego, ontziak nasetan atrakatzeko eta desatrakatzeko tokiak adierazteko, zama-lanak egiteko eta garraioekin edota itsas operazioekin zerikusia duten lanak egiteko behar diren baldintza tekniko eta praktikoak biltzen dituzte.

Urpekariak eta gizaigelak. Langile hauek, eska daitezkeen arau-betekizunak bilduta eta talde berezien laguntzarekin, urpeko lanak egiten dituzte, eta, enpresaren agindupean, beren teknikaren berezko lanak betetzen.

Teknikari tituludunak.

Espainiako Estatuak ofizialki ezarritako edo aitortutako irakaskuntza-zentro batek emandako titulu profesionala (hainbat mailatakoa) edukita, enpresak zein espezialitate teknikoko eginkizunetarako kontratatu duen, eginkizun horiek betetzen ditu.

Ingeniariak, arkitektoak eta lizentziadunak. Titulu profesionalaren arabera egin ditzaketen eginkizunak edo lanak egiten dituzte, tituluaren arabera hitzartutako lan-kontratuarekin bat; betiere, lana normal eta erregulariki egiten badute.

Perituak eta aparejadoreak. Erdi-mailako teknikariak daude kategoriatan honetan, eta, dagokion titulua edukita, tituluaren arabera kontratatu dituzte, edo tituluaren arloko eginkizunak betetzen dituzte, ohikotasunez.

Ingeniaritza eta arkitekturako laguntzaileak. Teknikari hauek, dagokion titulu profesionala edukita eta maisuen eta kontramaisuen gaineko aginte zuzena edukita, edo bulego teknikoetan, langileen lanaren, diziplinaren eta segurtasunaren ardura dute. Beraiei dagokie tailerreko edo tailerretako antolaketa- eta zuzendaritza-lanak gauzatzea, baita lanak egiteko behar diren tresnen eta gailuen krokisak egitea eta tresnak, energia, erregaia, lubrifikatzaileak eta tailerreko gainerrako gauzak daudela zaintzea ere; egin beharreko lanen barruan, obrak eta langileak sailkatu eta banatzen dituzte, eta zer tresna behar diren zehazten; produkzioa, makinen errendimendua eta fabrikazioa hobetzeko nahiz instalazioak handitzeko behar diren elementuak aztertzen dituzte.

Irakasleak. Bi kategoria daude: I. lehen mailako irakaskuntzako irakasleak eta II. oinarrizko irakaskuntzako irakasleak. Dagokion titulu profesional ofiziala edukita, beren lanbidearen berezko lanak egiten dituzte, ohikotasunez eta normal.

Maisu industrialak. Kategoriari dagokion diploma edo gaitasun profesionalaren agiria edukita, teknikari hauek lanbide-eskoletan eskuratutako ezagutzen berezko eginkizunak betetzen dituzte.

Proban dauden gabarretako eta itsasontzietako kapitainak, pilotuak eta makinistak. - Lanbide-kategoria honen barruan daude honako hauek:

Kapitainak eta lehenengo makinistak.

Pilotuak eta bigarren makinistak.

Kapitainek, pilotuek eta makinistek, askotariko lanbide-mailetan, dagokion titulu ofiziala edukita, zerbitzu ematen dute proban dauden gabarretan eta itsasontzietan.

Lan-harremanetako graduduna. Teknikari hauek, dagokion titulu ofiziala edukita, antolaketa-, kontrol-, aholkularitza- edo aginte-lanak egiten dituzte, langileen onarpen, sailkapen, egokitzapen, heziketa, ordainsari, lan, atsedeen, segurtasun, ekonomato, jantoki, jantzi, aurreikuspen eta aisialdiari dagokienez, baita enpresan parte hartzen duten guztien arteko anaitasunezko harremanak indartzeari begirako edota lan-metodoak eta langilearen eta haren familiaren bizi-baldintzak hobetzeari begirako lanei eta jardueri dagokienez ere.

Osasun-laguntzaile teknikoak. Dagokion titulu ofiziala edukita, bere lanbideko zerbitzuak ematen dituzte, ohikotasunez.

49. artikulua. Faltak eta zehapenak

Lan-arloan, faltatzen jotzen dira indarreko lan-xedapenek eta, bereziki, hitzarmen honetan jasotzen diren xedapenek ezartzen dituzten edozein motatako eskubideak urratzen dituzten ekintza edo omisio guztiak.

Langileak egiten duen falta oro arintzat, astuntzat edo oso astuntzat joko da, garrantzia, ondorio eta asmo txarraren arabera.

Falta arinak.

1. Arrazoirik gabe gehienez hiru aldiz berandu iristea, hilabetean.

2. Aldez aurretik ez jakinaraztea edo, hala badagokio, falta egin eta hurrengo 24 orduetan ez jakinaraztea ez laneratzeko arrazoia, salbu eta jakinaraztea ezinezkoa izan dela justifikatzen bada.

3. Arrazoi justifikaturik gabe, lana denbora labur baterako uztea. Lana uzteagatik garrantziko kalterik eragiten bazaie enpresari edo lankideei edo, hori dela-eta, istripua gertatzen bada, falta hori astuntzat edo oso astuntzat hartu ahal izango da, kasuen arabera.

4. Materiala zaintzean arduragabekeria txikiak egitea.

5. Norberaren garbitasunik edo txukuntasunik eza.

6. Jendea behar bezala eta egoki ez artatzea.

7. Enpresari bizileku- edo egoitza-aldaketen berri ez ematea.

8. Lanaldiaren barruan lankideekin eztabaidatzea.

9. Lanera egun batez ez joatea, arrazoia justifikatu gabe.

Falta astunak.

Honako hauek hartuko dira falta astuntzat:

1. 30 eguneko epean, hiru aldiz baino gehiagotan lanera berandu iristea, justifikaziorik gabe. Langilea atxilotu badute baina, gerora, leporatutako karguetatik absolbitzen badute, ez-laneratze hori justifikatuztat joko da.

2. Justifikaziorik gabe lanera ez joatea 1-3 egunetan, 30 eguneko epean. Falta bakar bat nahikoa izango da, lankide bat ordeztu behar denean edo faltaren ondorioz enpresari garrantziko kalteren bat eragiten zaionean.

3. Behar den garaian ez jakinaraztea familian izandako aldaketak, baldin eta Gizarte Segurantzari eragingo badiote eta familia babesteko prestazioei eragingo badiote (halakorik jasotzen duten langileen kasuan). Datu horiek emateari dagokionez, iruzur egitea edo datuak asmo gaiztoz ez ematea falta oso astuntzat hartuko da.

4. Edozein jolasetan aritzea lanaldiaren barruan.

5. Edozein lan-arlotan goikoei kasu ez egitea, baita lana arrazionalizatzeko metodo berrien edo enpresak sartu nahi duen makineria berriaren aurrean erresistentzia erakustea eta eragozpenak jartzea edo lan-orriak, asistentzia-orriak eta abar betetzeari uko egitea ere. Ekintza horrek diziplina argi eta garbi urratzen badu edo enpresari nahiz lankideei kalte larriren bat eragiten badie, falta oso astuntzat joko da.

6. Beste langile bat lanean dagoelako itxura egitea, haren ordez sinatuz edo fitxatuz.

7. Lanean zabarkeriaz eta gogorik gabe aritzea, jarduera onari kalte eraginez.

8. Lanean zuhurtziagabekeriak aritzea. Egoera horrek langilearentzako edo haren lankideentzako istripu-arriskua eragiten badu edo instalazioetarako matxura-arriskua, falta hori oso astuntzat hartu ahal izango da. Nolanahi ere, laneko zuhurtziagabekeriak hartuko da nahitaezko segurtasun-jantziak eta -aparatuak ez erabiltzea.

9. Baimenik gabe, lanaldian lan partikularrak egitea eta enpresako tresnak norberaren kontuetarako erabiltzea.

10. Nahiz eta ezberdina izan, falta arin bat berriz egitea (garaiz ez iristea salbu) hiru hilekoaren barruan, ahozko kargu-hartzeaz bestelako zehapena jarri bazaio.

Falta oso astunak.

Falta oso astunak izango dira honako hauek:

1. Sei hilabeteen hamar alditan baino gehiagotan eta urtebetean hogeai alditan baino gehiagotan garaiz ez iristea, inolako justifikaziorik gabe. Langilea atxilotu badute baina, gerora, leporatutako karguetatik absolbitzen badute, ez-laneratze hori justifikatutzat joko da.

2. Hilabete berean hiru egunez jarraian edo tartekako bost egunez lanera ez etortzea, justifikaziorik gabe.

3. Agindutako gestioetan iruzur egitea, desleial jokatzeko edo konfiantzaz aprobetxatzea eta lankideei, enpresari edo edozein pertsonari, enpresaren instalazioetan edo zerbitzuan edozein lekutan, ostea edo lapurtzea.

4. Lapurreta-, maula- edo bidegabeko erabiltze-delituak egitea enpresatik kanpo, edo beste edozein delitu arrunt egitea, baldin eta horrek delituaren egilearekiko konfiantza galtzea badakar enpresarentzat.

5. Gaixo-plantak egitea edo istripuren bat izan duela sinetsarazten saiatzea. Faltatzat hartuko da arrazoi horietako batek eragindako baja-egoeran dagoen langileak edozein lan egiten badu bere kontura edo beste norbaiten kontura. Atal honetan sartuko da, halaber, istripu edo gaixotasunagatik baja luzatzearen egindako manipulazio oro.

6. Behin eta berriro eta jarraian txukun eta garbi ez egotea, inguruabar horrek lankideen kexa justifikatuak eragiten baditu.

7. Lanean mozkortuta egotea.

8. Enpresaren gutunen edo dokumentu erreserbatuen sekretua haustea.

9. Nahitaez isilpean gorde beharreko datuak kanpotarrei erakustea.

10. Enpresak barne-araubideko araudian bateraezintzat jo dituen edo enpresarentzako lehia diren jarduerak egitea.

11. Hitzez edo egitez, nagusiak eta haien senideak, lankideak eta mendekoak gaizki tratatzea eta haiekiko errespetu edo begirunerik ez izatea.

12. Zabarkeriagatik edo zuhurtziagabekeria barkaezinagatik istripu larriak sorraraztea.

13. Erantzukizuneko postuetan lana uztea.

14. Laneko errendimendua murriztea, inolako justifikaziorik gabe.

15. Lankideekin liskarrak eta borrokak sortzea.

16. Aurreko atalaren 3., 5. eta 8. zenbakietan aurreikusitako onoriozkoak.

17. Nahiz eta beste mota batekoak izan, berriz ere falta astunak egitea, betiere hiruhilekoaren barruan egiten badira eta lehendik zigortu badira.

Zehapenak.

Faltak egiten dituztenei ezar dakizkiekeen gehieneko zehapenak honako hauek izango dira:

Falta arinengatik:

Ahozko kargu-hartzea.

Idatzizko kargu-hartzea.

Falta astunengatik:

Fabrikaren barruan lanpostua lekualdatzea.

2-20 egunerako enplegurik eta soldatarik gabe uztea.

Falta oso astunengatik:

21-60 egunerako enplegurik eta soldatarik gabe uztea.

Kategoriaz igotzeko ezintasuna, gehienez bost urtekoa.

Kaleratzea.

Aurreko paragrafoetan jasotzen den zehapenen zerrenda adibidea da, ez zehatza; enpresak beste zehapen batzuk ezarri ahalko ditu barne-araubideko araudian, baina, betiere, atal bakoitzean agertzen direnak baino astunagoak ez badira.

Azken xedapenak

1. Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuna.

Enpresak badaki bere sektorean gizonetako nagusi direla, eta emakumeei eta gizonei tratatu eta aukera berdinak emateko konpromisoa hartu du, enplegua lortzeari dagokionez nahiz lanbide-prestakuntzan eta -sustapenean, bai eta gainerako lan-baldintza guztietan ere.

2. Sexu-jazarpena lan-esparruan.

Pertsonen duintasunaren aurka erasotzeko asmoa duten eta sexuarekin harremana duten jarrerak eta portaerak, hitzezkoak nahiz fisikoak, ez onartzeko konpromisoa hartu du enpresak, eta, zehazki, sexuagatik giro larderiatsua, umiliagarria eta iraingarria sortu nahi dutenean.

3. Euskara sustatzea.

Amurrio Ferrocarril y Equipos SAn euskara sustatzeko, enpresaren iragarpen-kartel finkoak bi hizkuntzetan egingo dira, eta lehenetsuna euskarari emango zaio.

Amurrio Ferrocarril y Equipos, SA enpresaren hitzarmen kolektibo honetako testu artikulatua irakurri ondoren eta bi alderdiak ados egonik, enpresa-batzordeko kideek eta enpresa-zuzendaritzak sinatzen dute, ondorio bakar baterako eta legez daukan ordezkariaren izenean, Amurrión (Araba) 2022ko uztailaren 20an.

2022. urteko soldata-etaulak

KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	LAN TOXIKOA	PRIMA	PRESENTZIA PLUSA	OPOR-EGUNAK	UZTAILEKO APARTEKO PAGA	GABONETAKO APARTEKO PAGA	URTEKO SOLDATA
1.urteko espezialista	17.107,26	2.188,12	2.733,29	597,02	2.033,67	2.033,66	2.033,66	28.726,68
Espezialista	17.298,22	2.188,12	2.773,20	599,87	2.054,66	2.054,66	2.054,66	29.023,39
3. mailako ofiziala	17.547,87	2.188,12	2.877,94	707,63	2.096,33	2.096,33	2.096,33	29.610,55
2. mailako ofiziala	18.370,20	2.188,12	3.127,33	749,57	2.196,45	2.196,45	2.196,45	31.024,58
1. mailako ofiziala	19.247,22	2.188,12	3.366,74	814,62	2.302,68	2.302,68	2.302,68	32.524,74
1. mailako ofiziala talde-burua	21.806,10	2.188,12	4.025,12	1.013,24	2.609,74	2.609,72	2.609,72	36.861,77

KATEGORIAK	GAUEKO LANAREN ORDUKO BALIOA	ANTZINATASUNA (BOSTURTEKOAREN BALIOA EGUNEKO)	PRIMA ORDUAREN BALIOA	ORDU TOXIKOAREN BALIOA
1.urteko espezialista	2,6539	1,57	0,0830	1,3294
Espezialista	2,6539	1,60	0,0842	1,3294
3. mailako ofiziala	2,6539	1,63	0,0874	1,3294
2. mailako ofiziala	2,6539	1,75	0,0950	1,3294
1. mailako ofiziala	2,6539	1,88	0,1023	1,3294
1. mailako ofiziala talde-burua	3,1243	2,25	0,1223	1,3294

KATEGORIAK	OINARRIZKO SOLDATA	PRESENTZIA	OPOR-EGUNAK	UZTAILEKO APARTEKO PAGA	GABONETAKO APARTEKO PAGA	URTEKO SOLDATA	BALIO EGUNEKO
Mendekoak							
Atezaina	17.005,08	306,12	1.573,75	1.826,99	1.826,99	22.538,93	1,611
Biltegiaina	17.728,56	319,15	1.640,70	1.904,72	1.904,72	23.497,85	1,685
Administrariak							
Bulego-laguntzailea	17.987,92	323,82	1.664,70	1.932,59	1.932,59	23.841,62	1,751
2. mailako ofiziala t.	19.925,43	358,69	1.844,01	2.140,75	2.140,75	26.409,63	2,041
2. mailako ofiziala o.	20.627,47	371,33	1.908,98	2.216,17	2.216,17	27.340,13	2,145
1. mailako ofiziala	22.686,26	408,39	2.099,51	2.437,37	2.437,37	30.068,90	2,453
1. mailako burua	27.869,54	501,69	2.579,20	2.994,25	2.994,25	36.938,93	3,227
OTT (Teknikariak eta OT)							
2. mailako ofiziala	20.548,27	369,91	1.901,65	2.207,67	2.207,67	27.235,16	2,090
1. mailako ofiziala	22.710,53	408,83	2.101,76	2.439,97	2.439,97	30.101,06	2,406
1. mailako atalburua	27.221,97	490,05	2.519,27	2.924,67	2.924,67	36.080,63	3,066
Laborategiko teknikariak							
1. mailako analista	21.940,17	394,96	2.030,47	2.357,21	2.357,21	29.080,01	2,341
Bulegoko teknikariak							
Planoen erreproduzitzailea	16.244,75	292,44	1.503,38	1.745,30	1.745,30	21.531,17	1,491
2. mailako delineatzailea	20.627,45	371,33	1.908,98	2.216,17	2.216,17	27.340,11	2,145
1. mailako delineatzailea	22.686,24	408,39	2.099,51	2.437,36	2.437,36	30.068,88	2,453
Proiektugilea	25.090,85	451,68	2.322,05	2.695,71	2.695,71	33.256,00	2,713
Ingeniari teknikoa	27.613,97	497,10	2.555,55	2.966,79	2.966,79	36.600,21	3,188
Titulurik gabeko teknikariak							
Arduraduna	20.242,20	364,40	1.873,33	2.174,78	2.174,78	26.829,49	2,045
Lantegiko maisua	23.290,55	419,27	2.155,44	2.502,29	2.502,29	30.869,84	2,490
Lantegiko burua	27.613,97	497,10	2.555,55	2.966,79	2.966,79	36.600,21	3,188
Ingeniari-laguntzailea	31.708,02	570,80	2.934,44	3.406,65	3.406,65	42.026,55	3,800